

Barrena



Arrate Irratia, txikian handi

Lagun ezinbestekoa da Arrate Irratia etxe askotan, eta hantxe dihardu esatari Bernardo Ibarrak 52 urtean, hamaika zailtasuni aurre eginda eta hasi zeneko ilusio berberarekin / 2-3

Arrate Irratiko lantaldea, estudioan: Bernardo Ibarra, Eukene Landa, Elene Agirreamaioa, Asier Orbea eta Agurtzane Urriolabeitia. UBANE MADERA ZANGITU

ANIMAZIO ZINEMA

'El cuerpo de Cristo' lanak jaso du Animadeba jaialdiko Film Onenaren Saria

"Hizkuntza bisual berritzailea" erabiltzeagatik saritu du epaimahaiak Bea Lemaren lana / 25



Bea Lemaren ordezkaria jaso zuen Uniko ekoiztetxeko kidea, alkatearekin. N.B.A.

BERDINTASUNA

"Bizirik uzten gaituzten egunean iritsiko da isiltzeko unea"

Beldurrik gabeko munduarekin egiten du amets Loredi Salegi psikologo eta berdintasunaren aldeko aktibistak, aurtengo Lila saridunak / 12



Loredi Salegi. UTZITAKOIA

EUSKARA

Euskaltegian izena eman nahi dutenek azken egunak dituzte iraileko hauek

Euskara ikasten edo aberasten laguntzeko eskaintza zabala dute gertuko euskaltegietan, eta erraztasun nahiz laguntza handiak ere bai / 4

MENDI LASTERKETAK

1.200 lagun baino gehiago bilduko ditu bihar Ermuan Hiru Txikiak Trail lasterketak / 17



OSCAR BLANCO

AZPIEGITURAK

"Amaitzear" dute Mendaro parean A8an panel akustikoak jartzeko proiektuaren idazketa

Diputatuen Kontseiluak Mendaron egin duen bileraren ondotik eman du albistea Eider Mendoza diputatu nagusiak / 5



AINARA ARGOTIA

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA Bernardo Ibarra-ren ahotsa entzuteaz bat antzematen da hura dala egunero etxe askotan irratihin bitartez sartzen den lagun hori; Arrate Irratiko esataria. Informazioa eman, kontu kontari aritzen dena eta, noski, musikaren alaitasuna helarazten diena. 1978an hasi zen Bernardo Ibarra irrastian –lehenago, tarteka ibili zen Arratera joaten–, eta, oztopoak oztopo, 52 urte daramatza bertan.

Bihotzean eta zainetan darama irrastia, eta, beteranoa izanagatik ere, hasi zeneko ilusio berberarekin jarraitzen du. Hone-taz eta hartaz jardun du BARRENArekin; batez ere, irratiaz, eta, noski, Arrate Irratiaz.

Horren polemikoa zen Arrate Irratia birritan ixteko?

Garai haietan bai. 1959an aire-ratu zuen lehen seinalea On Pedro Gorostidik, euskara, eliz-kizunak eta musika ardatz hartuta, baina garai latz haietan, eta zenbait salaketa tarteko, 1964an itxi egin zuten irrastia orduko agintariekin.

1978an egin zen bigarren saia-kera. Elkartea sortu, eta uztai-lean emisioa hasi zen. Lau hilabete egin genituen.

Garai hartan, Bilbon ari nintzen lanean, Iberdueron. Zapa-tuetan etortzen nintzen irrati-ra; lantokitik irten, ogitartekoa jan eta, arineketa batean, 15:00etan trena Atxurin hartu eta 16:30ean Eibarrera heldu. Arratera oinez igo eta irrastian lanean hasi. Ni heldu artean, Eibarko Garbiñe Gisasola aritzen zen; gero, hemen egiten nuen lo; eta domeka arratsaldean, buelta Bilbora.

Bigarren aldian zergatik itxi zuten? Baimen ofizialik ez zegoelako. Baina uste dut salaketaren bat egon zela. Azaroan, astelehen goiz batean, Madrildik poliziak etorri ziren eta zigilatu egin zuten. 1982an, berriro zabaldu genuen.

Ofizialki?

Ez. Beldurrez zabaldu genuen, "oraintxe etorriko dira, oraintxe etorriko dira" berriro pentsatzen.

1982a baino lehen, hainbat bidaia egin genuen Madrilera eta Gasteizera, Eusko Jaurlaritzara. Madrilera On Pedro eta biok joan ginen. Bitxikeria moduan, ni hegazkinean behin bakarrik ibili naiz, eta orduan izan zen. Hango ministeriora joan ginen, eta bi gizajo bagina bezala hartu gintuzten. Gure egoera azaldu genien eta eran-



Bernardo Ibarra, autokontrolero gela nagusian, martitzenean. U.M.Z.

"Etorri nintzeneko ilusio berberarekin segitzen dut Arrate Irrastian"

BERNARDO IBARRA ARRATE IRRATIKO ZUZENDARIA ETA ESATARIA

Oso gutxi, edo, akaso, inork ez du izango Bernard Ibarra duen ibilbide profesional oparo eta luzea; 52 urte daramatza Arrate Irrastian lanean

tzuna "irratiko kontzesioen" zain egon behar genuela izan zen. Hitz onak, baina... Etorri ziren lehen kontzesioak, eta gehienak Espainia aldeko kateen eskuetara joan ziren. Guretzat ezer ere ez. Geroxeago, Eusko Jaurlaritzara joan ginen, eta Arrate Irratiaren lehenengo itxiera ez zela bidezkoa izan baina itxaron egin behar genuela apur bat adierazi ziguten.

"Irrati-instalazioaren zigiluak apurtu, hemen zegoen ekipo bat hartu eta emititzen hasi ginen"

Handik atera ginen esanez: "Hemen baietarik ez dute esan, baina ezta ezetz ere; orduan, erdiko bidetik egingo dugu". Esan eta egin, zigiluak apurtu eta aireratu egin ginen. Ordu-tik, martxan da Arrate Irratia. **Zenbat hasi zineten eta zenbat zarete orain?**

Bi lagun hasi ginen, Garbiñe Gisasola eta biok. Eta gaur egun, bost gara: Eukene Landa, Elene

"Esatari lanak, autokontrola, publizitate bila joan, fakturazioa... dena guk egiten dugu"

Agirreamaioa, Asier Orbea, Agurtzane Urriolabeitia eta bostok. Justu, baina ez du ematen gehiagorako.

Astelehenetik domekara, egunero egoten zarete 08:00etatik 21:00etara, ezta?

Bai, eta horri egunero eutsi egin behar zaio. Publizitate bila ere joan behar izaten dugu, auto-kontrola egin, fakturazioa, garbitasuna... Dena guk egiten dugu.

"Tirol aldeko musika oso gogoko dut, oso alaia da: lehen, irrastian disko batzuk zeuden; orain, askoz gehiago"

Gure programazioa irrati handiagoa baino apalagoa da, baina irrati bakoitzak bere berezitasuna izan behar du. Ez zait ahaztuko Arrate Irratiak 60ko hamarkadan eragiten zidan zirrarra, eta zirrarra hori berori helarazi nahi diegu gaurko entzuleei. Oso entzule leialak ditugu, jende oso jatorra.

Zenbat herritara ailegatzten da Arrate Irratia?

Gipuzkoan eta Bizkaian zati handiak estaltzen ditugu, Araban apur bat, eta baita Nafarroan ere. Baina, gaur egun, Internet bidez mundu osora heltzen gara. Bilbotik, Donostiatik, Madrildik, Bartzelonatik, Alemaniatik eta herrialde askotatik entzuten gaituzte Internet bidez. Bide horietatik, gure entzule kopurua gorantza doa.

Programaziotik zerk dauka arrakasta handien kanpora zein barrura begira?

Barrura begira, *Gora bihotzak* irratsaioa asko atsegin dut. Adin-neko pertsonei zuzendutako agurrak izaten dira, eta, sarritan, eurekin telefonoz zuzenean hitz egiten dugu. 95 urteko bati entzutea, haren euskara ezin hobearrekin eta daukan konformidadearekin eta bizipozarekin... Horrek erabat betetzen nau. Elkarrizketak ere gogoko ditut. Kanpora begira, berri-z, eguraldiaren saioa, Alkoholiko Anonimoek egiten duten jarduna, euskararen gaineko saioa, landareei eta arbolei buruzkoak, meza santua, kirolak eta herri-kirolak –batez ere– oso etxe-koak dira. Baita arratsaldeko saioa ere, musika, elkarrizketak eta informazioa.

Musika aipatu duzu. Izan ere, musika inportantea da Arrate Irrastian, eta diskoteka handia duzue, gainera.

Bai, mota askotako musika dugu, eta mota bakoitzean 10.000 pie-zatik gora: trikitia, soinu handia, euskal abestiak, Tirol aldekoak, Mexiko aldekoak, orkestrak, klasikoa, txistuarena, abesbatzak...

Bakarrak izango zarete Tirol aldeko musika eta beste zenbait musika mota ipintzen gaur egun hemen...

Tirol aldeko musika betidanik izan dut gogoko. Oso alaia da. Lehen ere, irrastian disko batzuk bazeuden; orain, askoz gehiago. Eta beste musika mota batzuk ere ia-ia hemen bakarrik entzuten dira gaur egun; txistua, adibidez.

Horrek ere ematen dio bere ukitua Arrate Irratiari...

Hori ere garrantzizkoa da. Irrati-formula egiten hasiko bagina, batetik, oso txarrak izango ginateke, eta, bestetik, daukagun entzuleria guztia galdu egingo genuke, eta berririk irabazi batere ez. Gainera, kontrolean ari naizela, ezingo nuke reggaeton piezarik jarri... ezta beste estilo batzuetakoak ere. Benetan, kontrolean ari naizenean, gozatu egiten dut, bizi egiten dut. Begira, kontrolean nabilenean, irrati-gailua izaten dut beti ondoan, eta, horrela, aldi berean entzule bihurtzen naiz, eta horregatik esaten dut: "Ederra! Elegantea! Hau da hau pieza!...". Halakoak barrutik irteten zaizkit; izan ere, musika jartzen dudanean, gozatu egiten dut, eta horregatik nago hain pozik Arrate Irratian. Eta garbi ikusi dut nire gustuko musikarekin bat egiten duten asko daudela. Gaur egun, musika mota hori entzuteko aukera bakarra gara.

Zer gustatuko litzazuke egitea edo nor elkarriketatzea?

Herri gehienetan badaude pertsona oso interesgarriak; asko dakitenak. Batzuetan, oso isilak eta apalak izaten dira. Haiei oihartzuna ematea polita izango litzateke. Historia, ohitura, etnografia, hizkuntza aldetik... Zerbait egiten dugu, baina gehiago gustura asko egingo genuke.

Osterantzean, gaziren bat baduzu programazioarekin?

Atzean utzitako programei begira jarriko naiz. Esaterako, *Bertso saioa*. Oso interesgarria zen, baina grabazioa eskuratzeko ordaindu egin behar izaten genuen. Eta gero, ordubeteko saioa txukun prestatzeko, ordu batzuk behar izaten ziren. Entzuleriak gogoko saioa zuen,

baina, saiatu arren, ez genuen babeslerik lortu.

Erakundeak ondo portatzen dira zuekin?

Euskaraz egiteagatik Gipuzkoako Foru Aldunditik dirulaguntza jasotzen dugu. Bestela, ezinezkoa litzateke irratiak aurrera egitea. Baina, era berean, erakundeen publizitatea gutxi heltzen zaigu hona; bistakoa da irrati handietara bideratzen dutela.

Zer da zailena?

Publizitatea lortzea. Gaur egungo gizartea asko aldatu da. Arrate Irratian bazkideak daude; garai batean, mordoa egin ziren. Sasoi hartan, euskal irratieta edo euskarazko aldizkarietan bazkide egitea, urtean kuota txiki bat ordainduz, militantzia zen; abertzaletasunaren keinua. Gaur egun, hori, neurri handi batean, galdu egin da. Beste gauza batzuk daude: plataformak, sare sozialak...

Bestalde, badaude oraindik ere egiten dugun lana eta hizkuntza gogoan hartzen duten pertsonak. Hori dela eta, bazkide berriak ere egiten dira.

Zailtasunak zailtasun, antzematen da zuk irratiia maite duzula.

Izugarri. Askorentzat mugikorra dena niretzat irratiia da. Asmakizunik onena da! Laguna da, ez zaude bakarrik, eginbeharrak egiten dituzun bitartean irudimena erabiltzen duzu, elkarrizketa bakoitza, kanta bakoitza... pelikula bat da.

Poztu egiten zara, negar egiten duzu, benetako lagunak egiten dituzu... Eta hori dena, doan; zer gehiago eskatu!

Komunikabidea denez, zelan ikusten duzu irratiaren egoera gaur egun?

Nolabait, arriskuan ikusten dut. Gaur egun, mugikorrari begira orduak eta orduak ematen dira, eta horri begira zauden bitartean ez duzu irratiia entzuten. Gainera, gizartea, nire ustetan, horren erabat menpe dago. Eta orain hasten dira arazo handiak sortzen.

Era berean, horrelakoetan, ez dakizu notizia bat benetakoa den edo ez. Irratia, berriz, serioagoa da. Irratiak konfiantza handiagoa ematen du. Kasu askotan, etxekotzat hartzen gaituzte, gainera.

Bestalde, gaur egun, irrati batzuk ari dira estudioetan kamerak jartzen. Nire ustez, irratiaren xarma galdu egiten da horrekin. Kamerarik ez dagoen



Bernardo Ibarra, Eukene Landa, Elene Agirreamaioa, Asier Orbea eta Agurtzane Urriolabeitia, irratiako estudioan, martitzenean. U.M.Z.



Bernardo Ibarra, euskal musika aukeratzen. U.M.Z.

"Zailena da publizitatea lortzea; erakundeek ere publizitate gutxi ipintzen dute hemen"

"Niretzat irratiia da asmakizunik onena, ez Internet eta ezta beste ezer ere, irratiia"

irratiian, entzule batzuentzat esataria potoloa, beste batzuentzat argala edo altua edo gaztea edo heldua izango da... Hori da irratiak duen magia.

Geroago eta komunikabide eta sasi-komunikabide gehiago dauden sasoi honetan, Arrate Irratiak zein eginkizun betetzen du, zure ustez? Beharrezko ikusten duzu?

Nire iritziz, Arrate Irratia ez balego, txistu doinuak, zortzi-koak, trikitia, Euskal Herriko herri-musika... eta auzo txiki askoren ahotsa entzun gabe geldituko litzateke.

Horrelako hedabide txikiak eta herri-girokoak bozgorailu gabe geldituko lirateke. Ondorioz, guztiz beharrezkoa ikusten dut.

Lan lotua da zuena; zelan ikusten duzue ondorengotza?

Kezka handiz ikusten dut. Arrate Irratian lan egiteko zaletasun apur bat ezinbestekoa da. Ordu asko egin behar dira, irratiaren beste aldean dauden entzuleak mimatu, arretaz erantzun... Hitz batean, zaindu. Ez dago lehen zegoen militantziarik. Beraz, denbora lekuko.

Esan duzu, baina bistakoa da zue Arrate Irratian benetan gustura zaudela.

Etorri nintzeneko ilusio berberarekin jarraitzen dut. Pozik nago hemen. Gure inguruan jende asko dagoela sentitzen dut, egiten dugun lana ona eta beharrezkoa dela uste dut, euskararen eta euskal gogoia pizteko baliagarria. Beharbada, ameslari hutsa naiz! Edozelan ere, daramagun herri-giroko bidea zuzena da; alegia, lan lotua da, baina poz handiak ematen ditu.

Eskaintza zabala eta erraztasun denak eta bi euskaltegietan

Euskara ikasi, freskatu edo hobetu nahi duenak azken egunak ditu iraileko hauek euskaltegian izena emateko. Aukera zabala eskaintzen dute haietan, eta dirulaguntzak ere handiak dira ikasleentzat

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Kaixo batek ate asko ireki ditza-ke. Hala dio euskaltegietako matrikulazio kanpaina aurkezteko Jaurilaritzak aukeratu duen leloetako batek. Hala da, bai, eta ez gara aspertuko esaten: mundu bat irabazten dute euskara ikasteko pausoa ematen dutenek. Eta, orain, doakotasunerako bidean Jaurilaritzak aurkeztutako Euskara Bonuari esker, inoiz baino merkeagoa dute. Izan ere, 120 euroko ordainketa bakar bat eginda, lau urtez ikasteko aukera izango dute euskaltegietan B1era arteko mailetan izena ematen dutenek. Baina hasierako mailetako ikasleentzat ez ezik, beren euskara freskatu nahi dutenentzat nahiz goi mailako tituluren bat nahi edo behar dutenentzat ere badira aukerak euskaltegietan, bai eta laguntzak ere, Jaurilaritzak berak nahiz tokian tokiko udalek sustatutakoak.

Prest daude euskaltegietan ikasturte berrirako, ikasleei euskara ikasten edo aberasten laguntzeko eskaintza zabalarekin. Urrian hasiko dute ikasturtea, eta irailaren 23-24a arte dago matrikula egiteko aukera gehienetan –informazio gehiagorako eta izena emateko, erreparatu taulari–.

Joan den ostegunean aurkeztu zuten erakunde publikoek eta euskaltegietako sareko ordezkariak matrikulazio kanpaina, eta han azaldu zituzten herritarrek euskara ikasteko dituzten bide eta laguntzak. Laguntzei dagokienez, Euskara Bonua da berrikuntza nagusia,

baina bestelako berrikuntzak ere badira aurtengo ikasturtean; esaterako, hizkuntza-eskakizunei lotutakoak. Izan ere, euskara eskakizun asimetrikoak eta partzialak ere egiaztatuko ditu aurrerantzean HABEk, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak.

Euskara Bonua

Hasierako mailetarako laguntza da, A0A0, A1A0, A1A1, A2A1 edo A2A2 abiapuntuarekin hasten diren ikasleentzakoak, eta berria da eredu. Euskara ikasten hasten direnek asmo horri eusteko pentsatua dago. Izan ere, 120 euroko matrikula ordainduta, lau urte ematen dizkio ikasleari euskara ikasteko, gehigarri ordaindu barik. Hala, abiapuntuaren arabera, ordu-poltza bat izango du ikasleak, eta epemuga baten barruan doan izango ditu ordu horiek agortu arteko ikastaroetako orduak.

Orain artekoarekin alderatuta, aldaketa zera da: lehen, ikastaro zehatzak finantzatzen zituela Jaurilaritzak, eta orain, ikasketa-prozesu oso bat. Abantailak ditu horrek ikaslearentzat: behin bakarrik egin beharko du matrikula; euskara ikastea %95eraino merkeagoa izango zaio –Jaurilaritzak egindako kalkuluen arabera, 2.100 euro baino gehiagoko kostua du ikasketa prozesu horrek–; eta ikasleak malgutasun handiagoa izango du euskara ikasteko, bere erritmoan ikasi ahal izango duelako.

Badira nabarmendu beharreko beste bi kontu ere: batetik,



Erakunde publikoetako eta euskaltegietako sareko ordezkariak, joan den astean, matrikulazio kanpaina aurkezten. IREKIA

eredu berriak ikaskuntza modalitate guztiak onartzen dituela –aurrez aurrekoa, online eta mistoa–; eta, bestetik, Euskara Bonua bateragarria dela beste dirulaguntza publikoekin, hala nola langabeei, jubilatuei eta 12 urtez azpiko seme-alabak dituztenei eta ikastaroaz aprobetxamendu ona egiten dutenei Debabarreneko zenbait udalek ematen dizkieten laguntzekin. Eta baita, jakina, euskaltegietan edo autoikaskuntzako zentro homologatueta maila gainditzeagatik edo euskara-mailak edo baliokideak egiaztatzeagatik Jaurilaritzak ematen dituenekin.

Gazteentzako berariazko laguntzak

C1 maila ikasten hasten diren ikasleek zuzeneko dirulaguntza jasoko dute euskaltegian matrikulatzean, eta orduko 0,60 euro bakarrik ordainduko dute. Dena den, aukera dute, ohiko dirulaguntzen bitartez, matrikula gisa ordaindutakoa berreskuratzeko eta, beraz, dena doan izateko; betiere, maila gainditzen edo egiaztatzen badute.

Hizkuntza eskakizun asimetrikoak eta partzialak

Titulu asimetrikoak atera ditu HABEk, lanpostu baterako ahozko eta idatzizko maila desberdina behar den kasuetarako. Izatez, bi trebetasun multzo bereizten ditu HABEk: idatzizkoa –irakurmena eta idazmena– eta ahozkoa –entzumen eta mintzamen–, eta, orain arte, lanpostu baterako gaitasun bera eskatzen zuen bietan. Orain, baina, hizkuntza eskakizun asimetrikoa egiaztatze auke-

ra izango da –oraintsu arte, lanpostu jakin batzuetarako oposizioetan bakarrik egiaztatu zitekeen–. A2B1, B1B2, B2C1 eta C2C1 tituluak eskainiko ditu, eta azkenengoa ez beste guztietan maila handiagoa eskatuko da ahozko trebetasunetan idatzizkoetan baino.

Titulu partzialak beste gauza bat dira, helburua antzekoa izanda ere. Desgaitasunen bat dutenei hizkuntza trebetasunak egiaztatze auzerak emateko sortu dituzte. Adibidez, entzumen arazo handiak dituztenei aukera emango diete aurrerantzean idazmena eta irakurmena

egiaztatze auzerak, ahozkoa eta entzumen egiaztatu beharrik gabe. Edozein kasutan, pertsona horrek behar bezala ziurtatu beharko du ezin duela trebetasun multzo jakin hori egin.

Euskaldun osoagoak izateko prestakuntza

Euskalduntze prozesuarekin lotzen dira sarri euskaltegiak, baina oker, euskaldunak direnek ere zabalik dutelako atea haietan. C1 eta C2 dira hizkuntzaren ezagutza aurreratua eta sakona egiaztatzen duten tituluak, eta bietarako presta daiteke gure gertuko euskaltegietan.

Debabarreneko euskaltegiak

Debabe Udal Euskaltegia. Elgoibarren, Deban eta Mutrikun ematen du zerbitzua. Maila guztiak eskaintzen dituzte.

• **Elgoibar:** Aita Agirre plaza 3. Telefonoa: 943 74 27 31. Posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus.

• **Deba:** Ifar kalea 12. Telefonoa: 943 19 22 36. Posta: udaleuskaltegia.deba@debabe.eus.

• **Mutriku:** Luardo etxea. Sabanika aldaia 4. Telefonoa: 943 60 30 94. Posta: udaleuskaltegia.mutriku@debabe.eus.

Eibarko Udal Euskaltegia. Portalea eraikineko bigarren solairuan dago, Bista Eder kalean. Telefonoa: 943 70 09 12. Posta: euskaltegia@eibar.eus.

AEK euskaltegia. AEK Euskal Herri osoan ditu euskaltegiak, eta gure eskualdean Ermuan, Eibarren, Soraluzen eta Elgoibarren ditu egoitzak. Maila guztiak eskaintzen dituzte.

• **Eibarko AEK euskaltegia:** Sotoa kalea 1. Telefonoa: 943 20 13 79. Posta: eibar@aek.eus.

• **Elgoibarko AEK euskaltegia:** Gabriel Kurutzelaegi 10. Telefonoa: 607 601 423. Posta: elgoibar@aek.eus.

• **Soraluzeko AEK euskaltegia:** Baldetegietan 2. Telefonoa: 943 75 14 34. Posta: soraluze@aek.eus.

• **Ermuko Kaltxango AEK:** Zearkale 16, behe. Telefonoa: 607 62 39 61 / 688 74 64 80. Posta: kaltxango@aek.eus.

Mendaron egin dute Diputatuen Kontseilu ibiltariaren 25. bilera

Diputatuen bilera egin aurretik, Mendaroren beharrez hitz egiteko eta martxan diren proiektuen jarraipena egiteko batzartu dira Eider Mendoza diputatu nagusia eta Enetz Ezenarro alkatea

Ainara Argoitia MENDARO
Gipuzkoako Foru Aldundiko asteroko Diputatuen Kontseilu-ko bilera ibiltaria Mendaron egin zuten martitzen goizean. Bileran, Gobernu-ko diputatu guztiek parte hartu zuten, Eider Mendoza diputatu nagusia buru zutela, eta Mendaroko alkate Enetz Ezenarro izan zuten lagun. Aldundiaren egitekoa lurralde osora gerturatze-ko eta tokian tokiko beharrak bertatik bertara ezagutzeko, al-
dian behin, herriz herri egiten dute martitzenean Mendaron egin zuten bilera, eta aste honetakoarekin, 25 udalerritan izan dira guztira legealdi honetan. "Gipuzkoako Plazatik Gipuzkoako plazetara gerturatuko ginela agindu genuen, eta horretan ari gara; horren erakusle da Kontseilu Ibiltariaren ekimen hau", zehaztu zuen bilera ondorenean Eider Mendoza diputatu nagusiak.

Elkarlanerako borondatea
Diputatuen Kontseiluaren bilera haren aurretik eta ondoren, harremanak sendotzeko aukera izan zuten Aldundiak eta Udalak, eta oso positibotzat jo zuten bi aldeek. Diputatu nagusiak eskerrak eman zizkion alkateari, "udaletzeko atearak zabaltzeagatik eta beti lanerako erakutsitako prestutasunagatik", eta eskertu zion hark diputatu nagusiari Mendaro aukeratu izana Diputatuen Kontseiluko bilera egiteko. Ezenarrok nabarmendu zuen era horretako ekimenak

oso direla garrantzitsuak, "erakunde-
en arteko hurbiltasuna, komunikazioa eta elkarlana" ezinbestekoak direlako herritarren arazoei erantzuteko, are gehiago baliabide mugatuak dituzten Mendaro bezalako herri txikientzat.
Debabarrena eskualdea aipatuta, lurralde-oreka ere aldarrikatu zuen Mendaroko alkateak. Azken urteotan hirigune handiek gero eta erakargarritasun handiagoa dutela gogoratu zuen, eta Debabarrenean "garapen ekonomiko sostengagarria eta zerbitzuak indartzeko beharra" nabarmendu. "Sufritzen dute azken hamarkadetakoa joera gu-
rea bezalako eskualdeek, eta hemen gaudela eta bertan bizitzen jarraitu nahi dugula aldarrikatu nahi dugu. Horretan Aldundiak eta beste erakunde batzuek zeresana dute. Jakin badakigu Aldundiak baduela sail bat horretara bideratuta, eta eskertu eta azpimarratu nahi dugu gurea bezalako herri eta eskualdeentzat politika horiek duten garrantzia". Horren hari-
ra, eskerrak eman zizkion al-
dundiari, Garagartza auzoa 634 erre-
pidearekin lotzen zuen zubia ber-
ritzeagatik eta Azpilgoetako au-
tobus geltokia egokitzeagatik. 2,5 milioi euro inguruko inbertsioa egin du Aldundiak zuba-
ia berritzeko, eta 153.632,42 eurokoa, Azpilgoetako autobus geltokia egokitze-
ko -Udalak beste 5.878 euro jarri ditu, geltokian mar-
kesina jartzeko-.



Foru Aldundiko diputatuak, Eider Mendoza diputatu nagusia buru dutela, Enetz Ezenarro Mendaroko alkatearekin. ALDUNDIA

Panel akustikoak, zubi berria, bidegorria eta beste

Herriaren beharrez eta esku artean dituzten proiektuez aritu ziren Enetz Ezenarro alkatea eta Eider Mendoza diputatu nagusia, eta Mendaron aspaldiko eskaera diren horietako gai batzuk aletu zituzten gero kazetarien aurrean; besteak beste, A8 autobideko trafikoak sortzen duen zarata arintzeko panelen gaia; uholdeek Garagartzan sortzen duten kaltea txikitzeko proiektua; zubi berriaren proiektua eta bidegorria. Tarte horretan, Mendozak aurreratu zuen hasiak direla A8 autobide ertzean panel akustikoak jartzeko proiektua lantzen, eta Bide Azpiegiturako eta Lurralde Estrategiako diputatu Felix Urkolak eman zituen horren xehetasunak. Urkolak zehaztu zuen proiektuaren idazketa lanak amaitze-
ar dituztela eta urte bukaerarako idatzita izan nahi luketela exekuzio proiektua, lizitazioa atera ahal izateko. Asmoa zera da: panelak jartzea 300 bat metroan, Plaza auzo parean eta Azpilgoeta parean.

Bidegorria
Altzola eta Mendaro batuko dituen bidegorriaren proiektuaz diputatu nagusiak esan zuen idazketa prozesua martxan dela

eta konpromisoa dutela bidegorria gauzatzeko, "eskari inportantea delako eta jasagarritasunaren, mugikortasunaren eta aisialdiaren ikuspuntutik ekarpen handia egingo dielako herriei eta herrien arteko loturari".

Uholdeak eta herrirako sarbide berria
Garagartzan uholdeetan sortzen diren kalteak saihesteko erakunde-
en arteko elkarlana ezinbestekotzat jo zuten bi aldeek, eta Aldundia "elkarrekin esku-hartzeko prest" dagoela nabarmen zuen Mendozak, "jakinda planteatzen den irtenbideak ez duela behin betiko konponbidea ekarriko eta arduraz jokatzeko dagokielako erakundeei". Hala ere, onartu zuen herri txiki batentzat inbertsio handia eskatzen duela -milioi bat euro ingurukoa-, eta Aldundia laguntzeko prest dagoela gaineratu zuen. Ezenarro, berriz, zehaztu zuen gaiaren inguruan hizketan jarraitzen dutela erakundeekin eta espero duela luze gabe "desataskatzea" gaia. Garagartzan bi ekaitz-tanke egiteko proiektua idatzita dago, baina zatika egin beharko dela



Enetz Ezenarro eta Eider Mendoza.

onartua du Udalak, kostu handiagatik. Zubi berriaren proiektua, bestetik, idatzita dagoela zehaztu zuten, baina aurrerago egingo dela, Aldundiak esku artean dauzkan egitasmo guztien artean beste batzuk daudelako lehenetsita: "Lurralde oreka bilatzen dugu. Hainbat egitasmo daukagu Gipuzkoan eta beste batzuk daude momentu honetan lehenetsita, behar handiagoa dutelako. Proiektu hori identifikatuta eta kuantifikatuta daukagu. Hamar milioi eurotik gorako inbertsioa eskatzen du, eta geroago egingo den zerbait da".

NIRE USTEZ

Euskal Herria "diasporizatu"



BENAN OREGI INURRIETA

2008an, Norvegiako Gobernuak kanpaina bat abiatu zuen ikastetxeetan, *Youth and Migration* izenburuarekin, ikasle gazteek familia-zuhaitza egiteaz gain, sorlekua eta bizitokia, edo heriotza-tokia, idatz zezaten. Helburua zuen konturaraztea denok izan garela migratzaileak eta orain guri egokitzen zaigula ongietorria egitea kanpotik datozkigunei. Brian Lambkin irakasle irlandarrari entzun nion maiz: "Oheratu jaio zinen ohea ez den batean oheratzen bazara, orduan zu zeu ere migratzailea zara".

Urte batzuetara, Euskadiko zenbait ikastetxetan ere burutu genuen programa antzeko bat. Emaizak beti ziren antzekoak; izan ere, familia guztietan dago mugikortasuna, zela edo halakoa. Hala esaten zuen Pierre Lhande apaizak 1910. urterako bere *L'émigration Basque* lanaren atarikoan. Euskaldun petoa izateko –zioen– hiru zirela bete beharreko baldintzak: ahoskatzeko zaila zen abizena eramatea (*porter*), Aitorren seme-alaben hizkuntza mintzatzea eta osabaren bat izatea Amerikan.

"Diaspora" terminoa ezarriko du, baita hiztegietan jasota ez dagoen termino bat ere: 'diasporizatu'

eta haren aita..." lerro zuzenean egin nuen ikerketak. Neu izan naiz, lerro horretan, urrutien joandakoa. Nora eta Gasteizera. Egin kontu!

Gaur euskaldunok jarraitu egiten dugu atzerrira joaten, gero eta maizago eta errazago joan ere. Orain, joan-etorrikoak izaten dira egonaldietako asko, eta, lehen ez bezala, gutxi(ago) dira betiko joaten direnak. Horri errealitate berri horri erreparatu beharrean gaude. Hala egingo du aurki Legebiltzarrerara joango den lege proiektuak. Nobedadeen artean, *diaspora* terminoa ezarriko du, baita inolako hiztegitan jasota ez datorren termino bat ere: *diasporizatu*.

Gaur, euskal gizarte osoak dugu beharra gure diasporako errealitateak ezagutu eta aintzakotzat hartzeko. Izan ere, gure herriaren etorkizunean asko izan lezake esateko kanpoan dugun euskal komunitate gero eta jantziagoak.

GUTUNAK

1957ko kamioi istripua argitu nahian

IGOR ETXABE IRURETAGOiena
ZARAUZT

Familia guztietan badira barrenak astindu dituzten gertakariak. Gurean, aitonak bere kamioiarekin izan zuen ezbeharra da, ziurrenik, mingarriena. Bera, Matias Iruretagoiena Urdanpilleta, *Matias txoferra*, Zarauzko Alfa fabrikako kamioi gidaria zen, eta sarritan egiten zuen Eibar alderako bidaia. Garai hartan –1957an–, artean A-8 autobidea eraiki gabe zegoenez, Deba bailara zeharkatzen zuen helmugara iritsi arte. Eta horietako bidaia batean ezbehar bat izan zuen: kamioiarekin haur bat harrapatu, eta berau lekuan bertan hil zen. Alabaina, ume hura ez zen gertakari latz haren biktima bakarra izan: aitona orain depresio deituko genukeen tristura handi batek hartu zuen, eta hurrengo hilabeteak ohean pasa zituen. Halaxe hil zen, 1959ko San Jose Egunean.

Zoritzarrez, ezer gutxi dakit gertakari hari buruz, amak 7 urte baitzituen istripua gertatu zenean. Berak beti esan izan du neskatala txiki bat izan zela biktima, 3-5 urte bitartekoa. Beste xehetasun bat ere oroitzen du amak: atzeko gurpilen artera sartu ei zen haurra. Ez ote zen, bada, ezbeharra atzera-martxako maniobra batean gertatuko? Berriki, beste hari-mutur bat agertu da istorio horretan. Zarauzko

bizilagun batek kontatu didanez, gure aitonak Txarriduna jatetxean bazkaldu ohi zuen Eibarrera egin beharreko joan-etorrietan, eta, ondorioz, litekeena da istripua Elgoibar inguruan gertatu izana. Horregatik bidali dut mezu hau BARRENA aldizkarira, irakurleren batek gertakari hari buruzko zerbait oroituko duen itxaropenez.

Ni saiatu naiz, han eta hemen, informazio gehigarria biltzen, baina, tamalez, orain arte ez dut arrastorik topatu. Ea Deba bailarako herritarren laguntzarekin Internetekin posible izan ez dena lortzen dudana. Edozein datu edo argibide izatekotan, mesedez, jarri harremanetan aldizkariarekin.

Aldez aurretik, mila esker!

Azaleko miaketak izango omen dira...

Z.A.

ELGOIBAR

Ekainean, Espainiako Gobernuako Trantsizio Ekologikorako Ministerioak Aralar 1 proiektuan Mantle8 Iberia SL enpresari baimena eman dio Euskal Herriko hainbat lekutan hidrogeno zuria bilatzeko.

Miaketa lanak Aralar, Urbasa, Andia eta Lokizeko mendilerroetan egingo dira, eta Gipuzkoako eta Arabako hainbat udalerriri eragingo die. Gipuzkoan: Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Ordizia eta Tolosa. Nafarroan: Anue, Araiz, Arbizu, Arruazu, Atetz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Betelu, Ergoiena, Erro, Esteribar, Etxarri Aranatz,

Ezkabarte, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Itza, Txulapain, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Odieta, Olaiibar, Uharte Arakil eta Ultzama.

Uztailean, ministerio berak, Aralar 2 izendatutako proiektuan, zein udalerritan egin ahal izango diren hidrogeno zuriaren bilaketa lanak onartu ditu. Araban: Asparrena, Harana, Entziako Partzuergoa. Nafarroan: Abartzuza, Allin, Altsasu, Ameskoabarrena, Arakil, Aranaratxe, Bakaiku, Belaskoain, Bidaurreta, Oltza Zendea, Zirauki, Ziritza, Etxarri, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Eulate, Goñi, Gesalatz, Girgillao, Irañeta, Iturmendi, Itza, Lana, Larraona, Lezaun, Metauten, Olazti, Gares, Jaitz, Uharte Arakil, Urdiaín, Ollaran, Deierri, Zabaltza, Ziordia eta Zuñiga.

Orain, udalerrri horietako baimenak bideratu beharko ditu enpresak. Oraingoz, baimenak urtebetekoak dira eta azaleko miaketak –lurra sakon zulatu gabe edota bide berririk ireki gabe– besterik ez dutela egingo adierazi dute. Ikusi egin beharko da zer diren "azaleko miaketa" horiek...

Mila esker

MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEA

ELGOIBAR

Irailaren 12an ospatu genuen Elgoibarko I. MTB martxa, eta Morkaiko Mendizale Elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu antolakuntzan parte hartu zenuten guztiei. Egun benetan borobila izatea lortu genuen

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Ander Gomez
Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,
Ander Gomez, Asier Orbea,
Egoitz Unamuno,
Garazi Mendieta, Izaro
Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta,
Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zalao Arnaiz,
Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako
UdalaElgoibarko
UdalaErmuko
UdalaMallabiko
UdalaMendaroko
UdalaMutrikuko
UdalaSoraluzeko
Udala

Babestutako hedabidea

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

guztion artean. Hori guztia ezinezkoa litzateke egunean bertan lagundu ziguten pertsona boluntariorik gabe. Lan bikaina burutu zuten, dudarik gabe.

Atxurtrail taldeari ere gure eskertza, egunean bertan ez ezik, aurreko egunetan ere ibilbidea diseinatzen eta txukuntzen eskainitako laguntzagatik.

Eskerrak, nola ez, proba hori aurrera eramaten lagundu diguten babesle guztiei, haiek gabe proba hori antolatzea ezinezkoa zatekeen eta: Elgoibarko Udala, Bike 360, Cafes Baque, Danobat, Alcorta, Deuko Izarra, Mauxitxa Gaztak, Txillarre baserria, Alzola Beraseta baserria, Lizagasar. Eskertza berezia baita ere Elgoibarko Izarrari, azken orduan parrillada egiteko material guztia uzteagatik.

Azkenik, ezin ahaztu eskerrak ematea parte hartzaileek igaro dituzten lursail eta baserrien jabeei. Eskerrik asko denoi, eta hurrengo urtera arte!

Gudarien Plazaren eraldaketa: aurrerapausoa ala atzerapausoa?

ALAZNE TXURRUKA, DEBAKO ALKATEA
DEBA

Azken asteotan Gudarien Plazaren eraldaketaren inguruan hainbat iritzi eta kezka azaldu dira. Herritarren ekarpenak eta kritikak entzutea garrantzitsua da, eta Udalaren ardura da

hartutako erabakien arrazoiak argi azaltzea.

Lehenik eta behin, argitu beharra dago Gudarien Plaza oinezko bihurtzeko erabakia aurreko legealdian hartu zela, Next Generation funtsen bidez bultzatutako deskarbonizazio-politiken barruan. Helburua ibilgailuen presentzia murriztea eta herritarrentzat oinezkoentzako espazio bat sortzea zen. Beraz, legealdi honetan eraldaketa hori nola gauzatu eta ingurunearekin nola integratu zehaztu da.

Plaza ingurunearekin hobeto integratzeko, errepidea asfalto inprimatuarekin egingo da. Paseo Estaliaren aurrean espaloi berri bat sortu da eta ibilgailuen abiadura murriztea aurreikusten da, plaza berriaren izaerarekin eta oinezkoen segurtasunarekin bat eginez. Autobus-geltokiari dagokionez, aukera aztertu da, baina Paseo Estaliaren aurrean sortutako espazioak ez ditu beharrezko neurriak betetzen. Ez da, beraz, borondate kontua, espazio fisikoaren baldintzena baizik.

Aparkalekuari dagokionez, lehen, Gudarien Plazan ordu erdiz doan aparkatzeko aukera zegoen. Baina, gaur egun, Estazio Zaharrean ordubetez aparkatu daiteke, doan.

Gudarien Plazaren eraldaketak aldaketak dakartza. Ibilgailuen protagonismoa murriztu eta plaza oinezkoei, herritarrei eta espazio publikoaren erabilera sozialari itzultzea aldaketa handia da, eta egokitzapena eskatzen du.

Ez dugu esaten proiektua perfektua denik. Plaza erabiltzen den heinean, haren funtzionamendua aztertuko dugu eta beharrezko hobekuntzak baloratuko ditugu.

Baina eztabaida serioa egin nahi badugu, datu eta errealitate guztiak mahai gainean jarri behar ditugu. Gudarien Plaza oinezko bihurtzea ez da atzerapauso bat. Aurrez hartutako erabaki baten garapena da, legealdi honetan ahalik eta modu egokienean gauzatzen ari dena.

Eta aparkalekuari dagokionez, galdera bera egitea besterik ez zaigu geratzen: non dago, bada, atzerapausoa?

Plaza zaharrean baloiaren beldurrez

SORALUZE
ROBERTO RETOLAZA

Plaza publiko batean umeak egunero baloikadaka ibiltzea ez zait normala iruditzen. Tiro-zelai bihurtzen dute, batik bat, Kutxako erakusleihoa porteria moduan erabiliz, askotan narruzko baloiekin, gainera. Eta jakin arren plaza horretan baloiarekin jolastea debekatuta dagoela, horri buruzko kartela eta guzti dago jarrita-eta. Baina inork ez du kasurik egiten, ez umeen gurasoek, eta ezta erakundeek ere. Gainera, Soraluzen badago leku asko baloiarekin ibiltzeko. Hango atarian bizi garen asko, urtea joan eta urtea etorri, beldurrez

pasatzen gara bertatik. Joan den astean, ama (93 urte ditu) ez zuten jo txiripaz. Iaz, niri buruan kolpea eman zidaten baloiarekin.

Lehengo alkateari, oraingoari eta udaltzainei kexatu natzaie sarri, eta ezer ere ez. Bost urte daramatzat egoera salatzen. Zer egin behar dut, Udala salatu? Zeren zain daude, norbaiti baloiarekin jo eta egundoko aberia egiteko?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **BARRENAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus



Ongizatea "denon artean" eraikitzeko dei egin dute Ongizatearen Plazan

Joan den astean, bi egunez landu zuten ongizatea, hainbat alorretatik helduta

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Kalegoen plaza hartu zuen joan den astean Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen Ongizatearen Plaza ekimenak. Modu batera edo bestera, guztion ongizatean eragina duten gaiak ekarri zituzten plazaren erdigunera, eta bi egunez landu zituzten, mahai inguruen, hitzaldien, tailerren eta solasaldien bidez. Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak eskerrak eman zizkien egitasmoan parte hartu duten herritarrei, eta ongizatea "denon artean" eraiki behar dela nabarmendu zuen. Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak eskerrak eman zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Elgoibar Ongizate Plazako geltoki gisa aukeratu izanagatik: "Horrelako ekimenek



Ongizatearen plazako irudia. ASIER ORBEA

gogorarazten digute ongizatea erronka kolektiboa dela, ezein erakundek ezin diola bakarrik heldu eta komunitate osoaren inplikazioa behar duela. Elgoibarren benetan sinesten dugu, eta horregatik poztan gara bi egun hauetan Kalegoen plaza guztiontzat zabalik dagoen topagune, hausnarketa eta partaidetzarako gunea izateaz".

Askotariko gaiak

Askotarikoak izan ziren Elgoibarko plazan landutako gaiak. Ariketa fisikoa eta elikadura osasuntsua, gazteen ongizate emozionala, pantailen erabilera, nekazaritza, sorkuntza, hizkuntzak eta industria izan zituzten aztergai, besteak beste, adituen eskutik.

Alzheimerraz arituko dira Gurutz Linazasoro eta Maite Solas



Linazasoro eta Solas. SAREA

A.A.

Elgoibarko EAJk Alzheimerrari buruzko hitzaldia antolatu du astelehenerako, Alzheimerraren Munduko Egunarekin bat eginez. 18:30ean izango da, Aita Agirre Kulturgunean, eta Gurutz Linazasoro neurologoa eta Maite Solas ikertzaile elgoibartarra izango dira hizlariak. Alzheimerra zer den eta nola garatzen den azaltzeaz gain, azken urteetako ikerketek zer ekarri duten, diagnostikoari eta prebentzioari buruz zer dakigun eta zein diren orain-

dik erantzun gabeko galderak landuko dituzte. Linazasoro neurologoa eta ikertzailea da, eta bere ibilbide profesionalaren zati handi bat gaixotasun neurodegeneratiboen azterketari eskaini dio, bereziki Parkinsonari eta Alzheimerrari. Solas, bestalde, ikertzailea eta Nafarroako Unibertsitateko Farmazia eta Nutrizio Fakultateko katedraduna da. Bere ikerketa Alzheimer gaixotasunean gertatzen diren mekanismo biologikoetan zentratzen da.

Helduentzako eta umeentzako irakurketa tailerrak izango dira aukeran liburutegian

A.A.

Udal Liburutegiak bi irakurketa tailer eskainiko ditu ikasturte honetan ere: *Epeletan*, helduentzat; eta *Paperezko hegoak*, umeentzat.

'Epeletan', asteazkenetan

Hilean behin biltzen dira, hileko azken asteazkenean, 19:00etan, Ainhoa Aldazabalen gidaritzapean. Tailerraren helburua da euskaraz irakurtzeko zaletasuna

sustatzea, liburuen inguruan lasai hitz egitea eta hausnartzeko topagune izatea. Kurtso honetako lehen saioa urriaren 7an izango da, eta Rosalind B. Penfolden *Ondo maite nazazu: tratu txarreko istorio bat* izango da mintzagai.

Txikientzat, 'Paperezko hegoak'

Irakurketaren bidez gaztetxoek aukera izango dute beren irudimena eta sormena lantzeko

eta beste gaztetxo batzuekin liburuen inguruko esperientziak partekatzeko. Tailer hori martxan dagoen laugarren urtea izango da aurtengoa, eta Peru Magdalena idazleak gidatuko du. Ikasturteko lehen saioa urriaren 20an izango da eta Peio Añorgaren *Gerlari handia* izango da mintzagai.

Informazio gehiagorako, liburutegira jo edo 943 74 35 25 zenbakira deitu behar da.

Zabalik dago 'Tertuliak' egitasmoan izena emateko epea

A.A.


Euskaraz hitz egiteko aukerarik ez dutenei horretarako espazioa eskaintzen dien egitasmoa da *Tertuliak*, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Urriatik ekainera iraungo du egitasmoak. Lauzpabost lagunek taldeak osatu eta talde bakoitzean euskaraz ondo dakien lagun bat egongo da, taldea dinamizatzeko. Urriaren 16ra arte eman daiteke izena, doan.

Hiru bide izena emateko

Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia dira eragileak, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. 2001ean jarri zuten martxan egitasmoa, eta iazko ikasturtean ospatu zuten 25. urteurrena. Izena emateko: Elgoibarko Izarra: 943 74 16 26 / AEK euskaltegia: 607 60 14 23 / Udal Euskaltegia: 943 74 27 31.

2027ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

- **GAIA:** gai libre da "ELGOIBAR". Herriko leku, txoko, ekimen, festa, gizarte bizitza... Argazkia Elgoibarren ateratakoa izan beharko da, 2025eko urritik aurrerakoa.
- **PARTE-HARTZAILEAK:** Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenak
- **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.
- **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- **LANEN AURKEZPENA:** Argazkiak emailaz bidaliko dira euskara@elgoibar.eus helbidera. Mezuan honako datu hauek agertu beharko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, eta argazkiaren lekua eta data.
- **ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2026ko urriaren 8ra arte.
- **SARIA:** Hamahiru argazki sarituko dira, eta bakoitzak 80 euroko bonua jasoko du Txankakua Merkataritza Elkartearen dendetan gastatzeko.
- **LEHIAKETAREN OINARRIAK:** elgoibar.eus



Sotoko Hotsak: bi kontzertu izango dira gaur, Aita Agirreko arkupean

Xabier Badiola bakarlariak eta Gailu taldeak emango dute kontzertua

Ainhoa Andonegi
Sinuoserren Sotoko Hotsak musika jaialdia gaur izango da, 19:00etan, Aita Agirreko arkupean. Xabier Badiola bakarlari eibartarrak hasiko du jaia. Rock psikodeliko eta progresiboko hainbat taldetan aritu ondoren, bakarka dihardu gaur egun, eta bakarkako bigarren lana argitaratu du: *Leiho ondoan xori bat*. Gitarra eta ahotsa dira nagusi haren jardunean, eta, bereziki, folk estiloko musika egiten du. Bakarlariaren ostean, Gailu musika taldeak hartuko du lekukoa oholtzan, eta oso bestelako doinuak aurkeztuko ditu. Hip-hop, punka, elektronika eta rocka nahasten ditu Andoaingo musika talde horrek. Luis Andre bideogileak eta Mikel Abrego musikariak sortu zuten taldea, 1997an. Abiapuntua urte hartan trafikoa kudeatzeko Bilbon ezarritako kamera-sarea izan zen; kamerek hartutako irudiekin 40 minutuko bideoa grabatu zuen Andrek, kontrolaren eta zaintzaren gaineko hausnarketa egiteko, eta Abregok musika jarri zion. Horren emaitza *Kutxa beltza* diskoa izan zen. 2021ean, proiektua berpiztu zuten.



Xabier Badiola. GAZTELUPEKO HOTSAK



Gailu taldeko kideak. KULTURKLIK



Maren. SAREA

Marenek kontzertua emango du Makina-erremintaren Museoan

A.A.
Marenek (Gallarta, 2002) zuzeneko emanaldia emango du Elgoibarko Makina-erremintaren Museoan irailaren 25ean, 20:00etan. Museoko arduradunek azaldu dutenez, ondare industrial eta musika uztartuko ditu Marenen emanaldiak, "agertoki berezi eta enblematiko batean: euskal ondare industrialaren bihotzean". Euskal Herriaren garapen industrialaren protagonista izan ziren ehun urteko makinez inguratuta emango duen kontzertua "intimoa" izango dela aurreratu dute. Museo-ko zuzendari Iker Garciaren esanetan, ekitaldiak ondare industrial publiko berrietara

hurbiltzea du helburu, eta museo topagune bihurtu nahi dute, "emoziorako, topaketarako eta kultura garaikiderako leku ere izan daitekeela erakusteko". 100 sarrera jarri zituzten salgai, eta dagoeneko agortuta daude.

19:00etan, ateak zabalik
Kontzertua 20:00etan hasiko bada ere, 19:00etatik aurrera ateak zabalik egongo dira kontzertura doazenentzat. Sheiko Eibarko jatetxearekin elkarlanean, haien produktuak dastatzeko aukera egongo da. Jan-edana probatzeko eskaintza bereziak izango dira aukeran, baina antolatzaileek zehaztu dute dastatzea ez dela doakoa izango.



Elgoibarko AEK euskaltegian izena emateko arrazoiak:

- Niveles de iniciación: pagas 120€ y aprende GRATIS durante cuatro años
- Tituluak ateratzeko (Osakidefza, irakaskuntza eta administrazioa)
- Hobeto hitz egiteko
- Euskal kultura ezagutzeko
- C1 (EGA): ia doan

IRAILAREN 24a arteko epea
607 601 423 - elgoibar@aek.eus

Gabriel Kurutzelaegi, 10, behea
(Toletxegain geltoki parean)

NIRE USTEZ

Jaiak eta herri-lana

IRENE MACAZAGA NUÑEZ
HIZKUNTZALARIA ETA
DOKTOREGO AURREKO
IKERTZAILEA

Joan dira San Bartolome jaiak, eta joan da uda ere. Iruditzen zait ikasturtearen hasierarekin azkar aldatzen dugula buruan darabilguna, azkar entretenitzen dugula burua lanera bueltatzearekin, eta, noski, egunerokotasunak dakartzan gainontzeko ardurekin. Nik, ordea, tartetxo bat hartu nahi dut jaietan oinarritzkoa den herri-lanari buruzko hausnarketa txiki –eta azaleko– bat egiteko.

Herri-lanaren oinarria kemena da; aurrean mila oztopo izango dituzula jakinda,

sinestea aurrera jarraitzea merezi duela. Adibide bat, beste askoren artean, ibai-garbitzetarena da. Urtero, abuztuaren 22an, Elgoibarko gazte-talde batek ibaia garbitzeko hautua egiten du. Maalatik hasi eta Kalebarren plazaraino ibaia gora. Erabaki hori hartzen dutenek jakin badakite hurrengo egunetan –ez

"Jaiak gizartearen erakusle dira: gehienek festa egin dezagun, gutxi batzuk atzean dabilta lanean"

bada hurrengo egunean bertan– ibaira begiratzuz gero han aurkituko dituztela dozena erdi aulki eta pare bat mahai.

Jaiak gizartearen erakusle dira: gehienek festa egin dezagun, gutxi batzuk atzean dabilta lanean. Gizarteak beste edozein esparrutan bezala, jaiak ere bi bertsio dituzte: askea bata, instituzionala bestea. Bakoitzak egin dezala bere aukera. Ziur nago jaietan izan dela gustatu zaigunik, eta baita gaizki iruditu zaigunik ere. Beraz, errutinaren mamuak itsutu aurretik, hausnartzeko tarte bat hartzeko gonbita egiten dizuet, jaiak denonak direlako, eta denok dugulako zer esan.

KLIK

Lainoen gaintetik

SAIOA RODRIGUEZ
ARGAZKILARIA




San Inazio, goiz eguzkitsu batean, Izarraitzetik Urola bailara zaintzen.



SEMAFOROA

Aparkaleku mugatua udako oporretan

"Abuztuan zergatik mantendu dute aparkaleku mugatua erdigunean? Udan askoz mugimendu gutxiago izaten da, eta aparkaldi mugatuak oztopoak sortzen ditu". Hirigintza Sailak erantzun hau eman digu: "Iazko abuztuan ere martxan egon zen TAO sistema. Azken urteetan herritarren ohiturak aldatu egin direla ikusi dugu eta abuztuan ere jendea egoten dela herrian. Abuztuan TAO sistema martxan ez edukitzeak erdiguneko aparkalekuetan mugimendurik eza sortu zuela sumatu zen, eta, beraz, aparkatzeko zailtasunak. Horregatik, TAO abuztuan ere martxan egotea erabaki zen".

Aparkalekuak errespetatu behar dira

"Musika Eskolako atarian bi moto handi zeuden aparkatuta astelehen goizean. Jendeak ez dauka inolako lotsarik, eta edozein lekutan aparkatzea libre dela uste du. Bizikidetzarako gutxieneko arauak errespetatu behar dira, bestela, jai dago".

Trena, jendez gainezka

"Elgoibarren lan egiten dut, eta trenez etortzen naiz egunero. Ikasturtea hasi denetik, oso deserosoa bilakatu da trenez bidaiatzea, eta gainera-tuko nuke arriskutsua ere badela. Gazte asko etortzen dira Elgoibarko ikastetxeetara, eta langile eta ikasle asko elkartzeko gara goizean. Jende asko etortzen da zutik, mugitu ezinda. Norbaitek komunera joateko beharra izango balu, ezingo litzateke komunera joan. Egun batean, hain zegoen beteta trena, ikasle bati motxila harrapatu zion ateak. Garraio publikoa erabiltzeko dei egiten dute erakundeek, behin eta berriro, baina horretarako kalitatezko zerbitzua behar dugu. Tren luzeagoa jarri beharko litzateke ordu horretan".

Uda denboraldi jendetsuena izan da Mintxetan, 2009tik

54.465 erabiltzaile zenbatu dituzte, inoizko bigarren denboraldi jendetsuena izan den honetan

Ainhoa Andonegi

2009. urteko bainu denboraldia izan zen jendetsuena Mintxetako aire zabaleko igerilekuetan, eta aurtengoari gutxi falta izan zaio kopuru hartara iristeko. Domekan itxi zuten bainu denboraldia, eta Udalak aditzera eman duenez, aurtengo datuetan igarri da eguraldiaren eragina. Guztira 54.465 erabiltzaile erregistratu dituzte ekainaren 13tik irailaren 13ra bitartean. Hortaz, %15 igo da erabiltzaile kopurua, iazko denboraldiarekin alderatuta, iaz 47.204 erabiltzaile izan baitziren. Igerilekuak 1993an zabaldu bazituzten ere, Udala 2005ean hasi zen erabiltzaile kopuruak neuruz, eta, jasota dituzten datuen arabera, 2009ko uda izan da orain arteko jendetsuena, 55.056 erabiltzailerekin. Orduan baino 591 erabiltzaile gutxiagorekin, aurtengoa izan da, beraz, orain arteko bigarren denboraldi jendetsuena. Nabarmentzekoa da



Udako egun bat, Mintxetan. ASIER ORBEA

uztaila izan zela jende gehien batu zuen hilabetea, alde handiarekin: 23.486 lagun joan ziren igerilekura uztailean; abuztuan, 9.348. Ekainaren 13tik 30era 16.440

erabiltzaile zenbatu zituzten, eta iraileko hamahiru egunetan, berriz, 4.332. Egunik jendetsuena, bestalde, uztailaren 21a izan zen, 2.313 lagunekin.

Erabiltzaileak urtez urte

- 2026: 54.465
- 2025: 47.204
- 2024: 40.210
- 2023: 47.400
- 2022: 47.000
- 2021: 41.500
- 2020: 27.000
- 2019: 43.000
- 2018: 42.000
- 2017: 34.000
- 2016: 40.411
- 2015: 45.123
- 2014: 34.522
- 2013: 53.527
- 2012: 52.000
- 2011: 42.065
- 2010: 48.000
- 2009: 55.056
- 2008: 34.342
- 2007: 15.000
- 2006: 29.000
- 2005: 32.000

Zirardamendiko frontean hildako gudariak omenduko dituzte domekan

A.A.

Elgoibarko Udalak jakinarazi du datorren irailaren 20an, igandea, 11:00etan, 36ko gerran Zirardamendiko frontean eraillako gudarien 90. urteurreneko omenaldi ekitaldia egingo dutela udalerrian. Ekitaldia Aias-tia-San Miguel auzoko pilotalekuaren ondoan izango da, Gernikako zuhaitzaren kimuaren

eta plaka oroigarriaren aurrean; fronte hartan borrokatu zirenak omentzeko memoria eta aitortza gunean, zehazki.


1936ko irailaren 25ean, Arana Goiri batailoiko hamalau euskal gudari hil zituzten Zirardamendiko frontean, Mola jeneralaren tropen kontrako liskarretan: Jose Txintxurreta, Paulino Beraza, Juan Zabala, Blas Larra-

zeleta, Ambrosio Etxebarría, Felipe Elorriaga, Sabin Atutxa, Emeterio Llavori, Eusebio Gaubeka, Juan Agirre, Imanol Etxebarria, Marcelino Gandarias, Miguel Palacio eta Felix Arbulu. Izaera irekiko ekitaldia da, parte hartu nahi duten pertsona guztiei zuzendua. Omenaldi horrekin, Elgoibarko Udalak memoria historikoa indarrean jarri nahi du, eta, era berean, askatasunaren, demokraziaren eta bizikidetzaren balioak defendatu zituzten pertsonen aitortza egingo diete.



Gudarien omenezko plaka. ASIER ORBEA

Jose Ramon Cabrera Avia saritu dute Avia argazki lehiaketan



Natura izan da gaia. J.R. CABRERA

Hirugarren urtez saritu dute Jose Ramon Cabrera Avia gasolindegia antolatzen duen argazki lehiaketan. 2027ko egutegia osatzea du helburu lehiaketak, eta aurtengo gaia *Natura* izan da. Gasteizko Salburuko hezegunean ateratako argazki bat aurkeztu zuen lehiaketara; maiatzean egindako erretratua da, oreinek adarretan borra izeneko iletxoak dituzten sasoiaren, hain zuzen ere. 600 mm-ko teleobjektibo batekin lortu zuen argazkia ateratzea, hezeguneko behatoki batetik. 50 euroko saria jaso du, gasolinatan erabiltzeko.

Isiltasunaren Eskola aurkezteko hitzaldia irailaren 25ean

Orain dela hamar bat urte jarri zuten martxan Elgoibarko Isiltasunaren Eskola, eta, orduetik, gogoetarako eta hausnarketarako biltzen da herri-talde bat, hilerok, Jose Cruz Igartua apaizarekin. Kanpokoa ikusteko lehenengo barrura begiratu behar dela diote ekimenaren arduradunek, eta horretan saiatzen dira; alegia, norberak barruan duen hori ezagutzen.

Elgoibartarrak egitasmo horretara batzeko bigarren deialdia egin nahi dute orain eskolaren sustatzaileek. Horretarako, eskolaren jarduna eta helburuak azaltzeko bilera egingo dute irailaren 25ean, musika eskolako auditoriumean, 18:00etan. Deialdi irekia da hori, eta herritar ororentzako dago zabalik. Informazioa ematea izango du helburu bilera horrek, eta ahalik eta herritar gehien batzea nahi dute eragileek.

EXPRESS ESKAINTZAK!

ROWENTA, X-CLEAN 7, LANBASA-ELEKTRIKOA

329 €

- Wet & Dry teknologia
- Kablerik gabea
- Led argiak
- 50 minutuko autonomia
- 2 batean garbiketa programa
- Zikinkeraren detekzio automatikoa



MILARBIRE


Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milarbire.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

TERXYPUR®



LAGUNAK

colchoneria textil hegoaldea



- 1. Stretch ehuna / 2. Polister zuntza
- 3. Soja natural ez-transgenikoaren biskoolastika
- 4. Polistera / 5. Ehungintza TB
- 6. Soja natural ez-transgenikoaren biskoolastika
- 7. Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
- 8. Platabanda / 9. Ehungintza TB / 10. Polistera
- 11. Polister zuntza / 12. 3d ehun iristagailua

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaen aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

"Emakume askok isilean egiten dugun lanaren aitortza izan da saria"

LOREDI SALEGI LILA SARIETAKO AURTENGO SARIDUNA

Ainhua Andonegi

Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen nabarmendu diren pertsonen zein erakundeek egindako lana saritzen du Lila Sariak, eta bosgarren edizioan Loredi Salegik jaso du aitortza. Psikologoa, sexologoa eta berdintasunaren aldeko aktibista eta dinamizatzailea da.

Nola jaso duzu saria?

Sorpresa handia izan da, eta erre-konozimendu galanta. Emakume askok isilean egiten dugun lanaren aitortza izan da saria. Denbora asko partekatzen dugu egunero: prestakuntzako milaka ordu dira, landutako ehunka film, tailerrak, manifestuak, artikulua, pankartak, hausnarketak, erabakiak, batukadaren entseguak... Inoiz ez duzu uste bizitza osoan egindako lan isil eta diskretu hori guztia ikusaraziko denik. Nabarmendu nahi dut lan partekatua dela; nik urte asko daramatzat hemen, baina hori faktore askori esker izan da, hala nola nigan konfiantza izan duten pertsonen esker eta beren buruarekin zein kausarekin konprometituak dauden emakumeen esker.

Nola hasi zinen lan horretan?

Betidanik dihardut: boluntario, lanean, militantzian... Beharra ikustea da gakoa, eta zer egin daitekeen pentsatzea. Pentsatu eta ekin. Betaurreko moreekin bizitzeko modu bat da nirea, eta ezin diot utzi desberdintasunak eta bizitza genero ikuspegiarekin ikusteari. Ez da lana bakarrik; militantzia-ordu gehiago daude.

Zer ematen dizu egiteko horrek?

Satisfazio handia, emakumeak ahaldunduta ikusteak liluratu egiten naudelako: zutik jarrita, atsekabeak gorabehera, gero eta gehiago gara, gero eta askeagoak, indartsuagoak. Azken batean, gizarte askeagoa, justuagoa, eta berdintasunezkoagoa eraikitzen ari gara. Hori hain argi bizi dut, non oso pozgarria den emakume bakoitzaren ahaldundutze prozesua bizitzea. Niretzat saio bakoitza erronka bat da. Ia inor ez da irteten saioetatik sartzen den bezala, eta horrek poztasun handia ematen dit. Garapen pertso-



Uluka batukadaren sortzaileetako bat izan zen Salegi. ASIER ORBEA

nalarekiko grina dut, eta ez naiz nekatzen prozesu pertsonalak sortzeaz. Eta, jakina, emaitzak ikusten dira, pertsonalak zein kolektiboak. Berdintasunerako bidea gogorra da, eta momentu txar asko izaten dira. Arazoei aurre egitea ez da batere atsegina. Hori ez da ikusten, ikusezina delako, baina erantzuna eman behar zaie, egoeretan laguntzen.

Igarri al duzu aldaketarik hasi zinenetik gaur egunera?

Gaur egun, jende gehiagok daki matxismoa ez dela politikoki zuzena, eta, ondorioz, jokabide matxistak sotilagoak dira. Badakigu feminismoa ezin dela matxismoarekin parekatu, eta feminismoa ez defendatzea ez dela zuzena. Matxismoarekin pareka daitekeena hembrismoa

"Denok ahotsa dugunean eta bizirik uzten gaituztenean iritsiko da isiltzeko unea"

da. Feminismoak berdintasuna defendatzen du, ez emakumeen nagusitasuna gizonen gainetik. Beraz, nork ez du bere burua feministatzat joko?

Uluka batukada feministaren sortzaileetako bat izan zinen. Borroka feminista kalera ateratzeko beste modu bat.

Bai, hori da. Oraindik, eraildako emakume asko dago, eta ezin gara isildu. Ez dut matxismoaren eta bere adierazpen larrienaren konplize izan nahi. Ahotsik ez dutenen ahotsa gara! Denok ahotsa dugunean eta bizirik uzten gaituztenean iritsiko da isiltzeko unea. Beldurrik gabeko mundu horrekin egiten dut amets.

Aurrera begira, zein dira zure asmoak?

Nahiago nuke ez balitz gogorazi behar onartezina dela gu hiltzen jarraitzea! Tamalez, hori ez da denbora gutxian aldatuko. Beraz, gure asmoa borrokan jarraitzea da, elkartuta, indar handiagoa egingo dugulako. Beraz, gurekin lankidetzan aritzera gonbidatu nahi ditugu emakumeak.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranao
 Guillermo Torres
 Elgoibar
 Albaitariza
 San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenetik ostirala:
 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbata: 11:00 - 13:00
 Inpazientziak berbaiztasun daukagu.
 Datu ordea hartzen da.

aldaz
 hartz klinikak · clínicas dentales
 RPS 128/24

Inplanteak

Inplante guztiak ez dira berdinak, eta ez dute kasu berberetarako balio. Ezagutu eskaintzen ditugun soluzioak:

- Inplante konbentzionala: galdutako hortza hezurreen integratzen den inplante baten bidez ordeztzen du.

- Atera osteko inplantea: hortza atera ondoren jartzen da inplantea, eta hitzordu kopurua eta itxaronaldia murriztu egiten da.

- Berehalako karga: inplanteaz gain, behin-behineko hortz finko bat jartzeko aukera ematen du kirurgia egiten den egun berean.

- Inplante zigomatikoa: masailalbo-hezurreen jartzen da, masailazurrak ohiko inplante bat jarri ahal izateko hezur nahikorik ez duenean.

- Inplante subperiostikoa: masailazurraren gainean finkatu ahala diseinatutako egitura. Alternatiboa, ohiko inplanteak egiteko adina hezur ez dagoenean.

Kasu bakoitza desberdina da; zurea aztertzen dugu, soluzio egokiena aurkitzeko.



San Bartolome, 22 - Elgoibar
 iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

Garaipena eta errekorra Iñaki Goenagarentzat Lizagasar Erronkan

Emakumezkoetan, Pilar Arriolak jantzi zuen txapela

Ainhoa Andonegi

CATT Morkaiko taldeak antolatuta, Lizagasar Erronkaren laugarren aldia jokatu zuten domekan Lizagasarko sagastian. Eguraldia lagun, herritar asko batu ziren sagartokian: batzuk, parte hartzeko, eta gainerakoak, ikusle. 39 lagunek hartu zuten parte erronkan; horietatik zazpi, emakumezkoak.

Sagartokiko sarreran hasi zuten lasterketa, eta handik sagastira abiatu ziren korrikalariak. Kanpoko aldetik itzulia eman zioten lehenik sagastiari, eta gero, Lizagasarren dauden 60 sagar arbolon ingurutik gora eta behera aritu ziren korrika; handik, sagartokiko sarreran zegoen helmugara iritsi ziren. Zortzi kilometroko ibilbidea egiten azkarrena Iñaki Goenaga soraluzetarra izan zen, eta, proba irabazteaz gain, errekor berria

ezarri zuen: 50.32 egin zuen. Erronkaren lehenengo edizioa ere irabazi zuen Goenagak, eta ondorengo bietan Iñigo Lariz izan zen txapelduna. Aurten, ordea, bigarren izan da korrikalari elgoibartarra (54.52). Hirugarrena, berriz, Julen Dobarro izan zen (56.34).

Emakumezkoetan, iaz bezala, Pilar Arriola elgoibartarra izan zen helmugaratzen lehena, 1.14.32ko denbora eginda, eta haren ahizpa Agurtzane izan zen bigarren, (1.22.18). Hirugarren lekuan Elena Rodriguez geratu zen (1.24.10).

Urtero bezala, hainbat sari berezi banatu zituzten antolatzailleek: aurpegi onenaren saria Camilo Lopezek jaso zuen, eta lasterketako azkenak jaso ohi duen kalabaza Mikel Jose Egizabal gaztearentzat izan zen; lasterketako azken sailkatua

izateaz gain, gazteena ere izan zen Egizabal domekako proban: 13 urte ditu, eta, hain zuzen, 1.54.24ko denbora eginez amaitu zuen erronka.

Sari banaketaren ostean, Lizagasarko barazkiz osatutako orgatila zozkatu zuten, eta Ane Izeta izan zen irabazlea.

Umeen lasterketak

Nagusiak sagastian barrena korrika ibili ziren bitartean, umeen lasterketak egin zituzten sagartoki sarrera inguruan, eta ekimen horrek ere errekor guztiak hautsi ditu aurtengo edizioan, 60 umek hartu baitute parte. Adinka banatu zituzten lasterketak, eta nork bere neurria egokitutako ibilbidean egin zuen saltaka. Amaieran, guztiei eman zieten oparitxo bana.

Argazkiak eta bideoak: *barrena.eus*.



Iñaki Goenaga, sagastian barrena. ASIER ORBEA



Pilar Arriola txapeldun, emakumezkoetan. ASIER ORBEA

250 bat lagunek hartu dute parte Elgoibarko I. Mendi Bizikleta Martxan

Aurreikuspen guztiak gaindituta, pozik daude antolatzailleak

A.A.

Hamar urteko etenaldiaren ondoren, Elgoibarko Mendi Bizikleta Martxa berreskuratu du Morkaikok. Zapatuan izan zen, eta ia 250 lagunek hartu zuten parte. Martxa txikia, motza eta luzea izan zituzten aukeran partaideek. Mintxetan hasi eta bukatu ziren ibilbide guztiak: martxa txikia egin zuten etxeko txikienek, familian, eta nagusiek beste bi ibilbide egin zituzten: motza batzuek eta luzea besteek. Kirolerako eguraldi ezin hobea egin zuen zapatuan, eta goizean goizetik txirrindulariz bete zen Mintxetako aparkalekua. Antolatzailleak "oso pozik" zeuden martxak izan zuen partaidetza-rekin, eta aurreikuspenik one-nak bete zirela gaineratu zuten. Horrez gain, antolakuntzatik esan dutenez, partaideak eurak ere oso gustura ibili ziren. Ibil-



Txirrindulariak, mendian zehar. MORKAIKO

bideak politak bezain gogorrak izan zirela aipatu zuten txirrindulari batzuek, baina, oro har, denek esan zuten gogotik gozatu zutela.

Probaren ostean, mokadutxoa egin zuten guztiek elkarrekin

Mintxetan, eta giro onean pasatu zuten goiza. Antolatzailleek eskerrak eman dizkiete proban lagundu zuten babesle zein boluntarioei, eta datorren urtean berriz elkar ikusiko duten itxaropena agertu dute.



Martxa txikiko partaideak, Mintxetan. AINHOA ANDONEGI



Bi partaide, Karakatetik jaisten. AINHOA ANDONEGI

Garaipen batekin hasi du liga Haundi gizonen taldeak

Zapatuan Mintxetan jokatu dute gizonen eta emakumeen Haundi taldeek

Asier Orbea ELGOIBAR

Irailaren bigarren asteburuan hasi zuten ofizialki Ohorezko Erregional Mailako futbol liga. Gizonen Haundi taldeak garaipen batekin hasi du Ander Treviño (Eibar, 1985) entrenatzailearen aginduetara hasi duten etapa berria. Zuri-gorriek 1-2 irabazi zioten Beti Gazteri, Lesakako Maistegi futbol zelaian jokatuako partidari. Iker Iglesiasek sartu zuen elgoibartarren denboraldiko lehen gola, 35. minutuan, eta Unai Arriolak handitu zuen aldea, 71. minutuan sartutako golarekin. Yeray Geromettak sartu zuen lesakarren gola, 78. minutuan. Haundik zapatu honetan jokatu du etxeko lehen partida, Mintxetan, eta Mondragon izango dute aurkari (16:30). Arrasatearrek bana egin zuten Bergararekin lehen jardunaldian.

Emakumeen Haundi taldeak etxean hasiko du liga

Emakumeen Haundi taldeak ere zapatuan jokatu du ligako lehen partida, Mintxetan, gizonen norgehiagokaren ostean, 18:30ean. Urola taldea izango dute aurkari. Andoni Duartek eta Alex Zalbak entrenatutako



Haundi taldeetarako fitxaketak. CD ELGOIBAR

taldeak ligako hirugarren postuan amaitu zuen iaz, hainbat jardunalditan igoera postuen lehian ibili eta gero.

Gizonezkoen bigarren taldeak ere asteburuan hasiko du Erre-

gional Mailako liga txapelketa, derbi batekin hasi ere, Eibarko Urki taldea izango baitute aurkari, domekan, irailak 20, Mintxetan jokatu dute norgehiagokan, 18:30ean.



Idotorbeko aldapetan erabakiko da proba. BARRENA

Juniorren txirrindulari lasterketa jokatu dute bihar

Asier Orbea ELGOIBAR

Junior mailako txirrindulari onenen topagunea izango da Elgoibar zapatuan, irailak 19, Elgoibarko Hiria Saria probaren 46. ekitaldia lehiatuko baitute, Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatuta. Txirrindulariak Kalegoen plaza irtengo dira irteera neutralizatuan, 15:25ean, eta 70 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute: Bergara aldera joko dute lehenik, eta handik

Mutrikura gero. Idotorbe gainean egongo da helmuga, eta, aurreikuspenen arabera, 17:10 ingururako iritsiko dira txirrindulari azkarrenak.

lazko irabazlea

Iazko proba uztailen jokatu zuten, eta Joan Cardona Valdajos gailendu zen; hain zuzen, gero sanbartolomeetan jokatu zuten Etxaniz Memorialean azkarrena izan zen txirrindulari hondarribiarra.

Musika elektronikoaren jaiak egingo dute Maalan eta gaztetxean

Asier Orbea ELGOIBAR

Osynth tekno musikaren jaiak egingo dute zapatuan Maalako parkean, eta gauerditik aurrera Sutegixa gaztetxean jarraituko du jaiak. Alternative Division elkarteak antolatu du, bigarren urtez, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Iaz, Beñat Gutierrez Arrieta taldekidea eta laguna gogoratzeko eta omentzeko baliatu zuten musika elektronikoaren bueltan ondutako jaiak.

Gonbidatu nagusia: Waveratio 618

Zapatuan, Waveratio 618 eta Alternative Krew arituko dira musika jartzen Maalan, 18:00etatik 00:00etara. Gaztetxeko saioa gauerdian hasiko dute, eta goi-

zaldeko seiak bitartean arituko dira musika jartzen hiru DJ: Christian Bonanata, The Zenobit3 eta Waveratio 618. Aurten gonbidatu nagusia Matteo Manfellotti musikari eta soinu-ingeniari italiarra da; Waveratio 618 proiektuaren sortzailea, alegia. "Batziek diskoak ipintzen dituzte, eta beste batzuk gai dira beren eskuekin soinu egiteko. Horien artean dago Manfellotti: soinu-ingeniaria, biniloari leiala kabinan eta baita zuzeneko artista ere. Saio bakoitzari izaera gordin eta organikoa ematen dion ikuspegi analogikoa dauka", azaldu dute, italiarraz, antolatzaileek. Elgoibarren zuzeneko formatuan



Waveratio 618 DJa. MATTEO MANFELLOTTI

arituko dela aurreratu dute, eta break, EBM, elektro, tekno eta acid house estiloak uztartuko dituzte.

Elgoibarko tren geltokia modernizatzeko lanak hasi dituzte

Asier Orbea ELGOIBAR

Asteon hasi dituzte Elgoibarko geltokiko trenbidea modernizatzeko lanak, eta hiru zatitan egingo dituzte, urte amaierara bitartean. ETS Euskal Trenbide Sareak 1.313.569,14 eurotan ateratu zituen lanok lizitazioa -BEZa barne-. Lanen helburua da zaharkituta geratu den bideko armamentua ordezkatzea, "armamentu sendoagoa ipinita".

Lanen eragina

Lanak eguneg egingo dituzten arren, noizean behin gauez ere arituko dira, 22:30etik 05:30era bitartean, Maala ingurutik hasi eta Santa Ana kale bukaeraraino. Lehen fasean, erabiltzaileek

geltokiko eraikinaren ondoan dagoen trenbideko 1. nasa erabili beharko dute Bilborantz zein Donostiarantz joateko.



Elgoibarko geltokia ASIER ORBEA

Gararock Udazkenean iragarri dute urri-azarorako: lau kontzertuko zikloa

Rudiger, Maraca Diablo, Harat eta Gailu izango dira talde gonbidatuak

AINARA ARGOITIA MENDARO

Ezusteko albistea izan da askorentzat, iazko apirilaren 24an aurten ez zela Gararock jaialdirik izango iragarri baitzuten antolatzailleek. Baina orduan ere zehaztu zuten ez zela behin betiko agurra hura, baizik eta eten bat, atsedeen hartzea eskatzen baitzien gorputzak. Baina bueltan dira, beste molde batean bada ere, eta kartela iragartzeko egun berezia hautatu dute, gainera. Izan ere, 2016an estreinakoz antolatu zuten jaialdiaren hamargarren edizioa izango zen bihar, iraileko hirugarren zapatuan, etena egitea erabaki izan ez balute. Oraingoan, dena den, beste planteamendu batekin datoz: lau kontzertu iragarri dituzte udazkenerako; San Agustin kulturgunean izango dira lau kontzertuak, doan, 22:00etan hasita denak.

Hasteko, Rudiger

Urriaren 30ean izango da lehengo kontzertua, eta Rudiger izango da talde gonbidatua. Aki-zen (Frantzia) sortu, Donostiriri hazi (Nafarroa Beherea) eta gaur egun Beran (Nafarroa) bizi den Felix Buff musikariaren proiektua da, besteak beste Willis Drummond, Joseba Irazoki, Atom Rhumba, Gorka Urbizu, Rafael Berrio, Joseba B. Lenoir eta Ruper Ordorikarekin ibilitako



Rudiger taldeak hasiko ditu kontzertuak, urriaren 30ean. 'ALEA'

bateria jotzailearena. 2020an sortu zuen Rudiger bakarkako proiektua Felix Buffek –haren bigarren abizenari egiten dio erreferentzia izenak–, eta bi album ditu kaleratuak: *Before it Vanished* eta *The Dancing King*. Pop musika egiten du.

Azaroaren 13an, Maraca Diablore txanda izango da, herriko taldearena. Ina Iriondoren proiektua da, eta lagunak izango ditu oholtzan. Maraca Diablok bi disko ditu bakarka emanda: *Hail Zigarat!* eta *El regreso del niño*. Pandemian, Josu Iriondo–baxua–, Asier Etxaniz–gitarra eta ahotsa–, Anita Perez–ahotsa eta sintetizadorea– eta Rafa Furnierrekin –bateria eta perkusioa– elkartu, eta taldearen izen bereko diskoa eman zuten argitara: *Maraca*

Diablo. Eta aurten, martxoan, lau lagun horien eta seme Eneko Iriondoren laguntzarekin *Txaskario* eman du argitara Iriondok.

Harat taldearen kontzertua izango da zikloko hirugarrena. Azaroaren 20an etorriko dira Mendarora. Ibai Gogortzak –gitarra, ahotsa–, Martin Arbelaitzek –bateria– eta Iñigo Telletxeak –baxua– osatzen dute taldea, eta Beratik datoz. Taldearen izen bereko disko bat dute merkatuan, 2022an argitaratua, eta rocka egiten dute.

Andoaingo Gailuk itxiko du Gararock Udazkenean ekimena, azaroaren 27an. Hain zuzen ere, gaur, Elgoibarko Sotoko Hotsak musika jaialdian izango den bi taldeetako batek –Xabier Badiola bakarlarria da bestea–.

Emakumezkoen Master Laboral Kutxa txapelketako partidua gaur

A.A.

Emakume pilotarien Master Laboral Kutxa txapelketako partidua jokatu dute gaur Mendaron. Emakumeen pilotari ikusgarritasuna eman, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu eta pilota gustuko duten gaztetxoei erreferenteak gerturatzeko antolatu zuten txapelketa duela zazpi urte, eta punta-puntako kirolariak ari dira lehiatzen urtero. Zehazki, udako eskuz binakako txapelketako kanporaketa jokatu dute gaur Mendaron, eta gazte mailako nahiz elite mailako pilotariak arituko dira nor baino nor gehiago. Jaialdia 19:00etan hasiko da.



Artiboko argazki bat. SAREA

Herriko Enparantzan autoekin sartzeko mugei eutsi die Udalak

Herriko Enparantzan trafikoari jarritako mugak mantendu egingo ditu Mendaroko Udalak. Asategunetan ibilgailu motordunekin sartzeko ordutegia 08:00etatik 12:30era mugatu zuen Udalak iazko urte amaieran, eta, sei hilabeteko probaldia amaituta, balorazio positiboa egin dute udal arduradunek. Horregatik erabaki dute ordutegi hori man-

tentzea. Trafikoa mugatzeko erabakia, berriz, Mendaroko espazio publikoaren inguruko *Kaleak Den* ONAK planean jasotakoan oinarrituta hartu zuten.

Plan hura diseinatzeko, hainbat bilera egin zituzten herritarrekin, Projekta Urbesek gidatuta, eta haietan herriko bizitarako gunen nagusitzat jo zuten herritarrek Herriko Enparantza. Horregatik, "leku lasaia goa, seguruagoa eta osasuntsuagoa" bihurtu behar zela eskatu zuten, bereziki, haur, edadetu eta pertsona kalteberentzako.

Euskal dantzetan izena emateko epea zabalik du In Leike elkarteak

Urrian hasiko dituzte Mendaron euskal dantza eskolak, eta astean behin elkartuko dira dantzarako, egunetan. Eskolak Azpilgoetako Kultur Etxean emango dituzte, eta aurten, Mutrikuko bi dantzari arituko dira irakasle lanetan.

Orain arte bezala, bi talde bereziko dituzte antolatzaileek, In Leike kultur elkarteak: hau-

rrena eta helduena. Eta maila bakoitzean bi talde osatuko dituzte: umeei dagokienez, 17:00etatik 17:45era izango dira HH4tik LH1era artekoen eskolak, eta 17:45etik 18:45era LH2tik LH4ra artekoenak; helduen taldean bi ordutegi izango dira aukeran: 18:00etatik 19:15era bata eta 19:15etik 20:30era bestea. Izena emateko: mendaroninleike@gmail.com.

Azken urteotan asko hazi da taldea, baina antolatzaileek dei berezia egin diete gizonezkoiei taldera batzeko.

Irailaren 26an egingo dute aire zabaleko margo lehiaketa

A.A. MENDARO

31. ekitaldia izango da aurtengoa, eta bi kategoria bereiziko dituzte: helduena eta 14 urtez azpikoena, zeinean bi azpikategoria banatuko dituzten, adin tartearen arabera: HH2-LH2 eta LH3-DBH3. Margolariek mugatua

izango dute lanerako eremua, baina libre nahi duten teknika, formatu eta euskarria erabiltzea. 09:00etatik 11:00ak bitartean zigitatu beharko dira euskarriak, frontoian, eta 13:00-14:00 alderako entregatu beharko dituzte lanak.

Helduen kategorian lau sari banatuko dituzte: 700 euroko sari nagusi bat, 500 euroko beste bat eta 300 euroko bi. 14 urtez azpikoetan, berriz, kategoria bakoitzeko onenek margotzeko materiala jasoko dute sarritzat.

Balleta
Ballet klasikoa
eta dantza modernoaren koreografiak.
Nauvak - Gazteak - Helduak
Deitu! 667 51 91 53

IXOTU
BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
BERGARA - 943 044 728

Eguerdietan ere irekiko dute gimnasioa

Mendaroarren eta herrira lanea etortzen diren askoren aspal-diko eskaera bete egingo du

Udalak. Izan ere, asteko hiru egunetan, eguerdietan ere zabalik izango da gimnasioa aurreantzean. Astearte, ostegun eta ostiraletan izango da hori, 12:30etik 15:00etara.

Minbiziaren Aurkako Martxak kolore berdez tindatuko ditu Ermuko kaleak

Plazak betez gero, 31.000 euro bideratuko dira prostatako minbiziaren ikerketara

Ander Gomez

Urriaren 18an ospatuko da Ermuko Minbiziaren Aurkako Martxa. Hamabigarren aldia izango da, eta martitzen honetan zabaldu dute izen-ematea. Dorsal bakoitzak 10 euroko kostua du, eta, horrekin batera, elastikoa jasoko da. Iazkoa arrosa izan zen; aurtén, berdea aukeratu dute, elkartearen kolorea. Merkatu Plazara joaten direnek norbere dorsala zein beste batzuen eskuratu ahal izango dute, haien datu pertsonalak emanda. Iaz bezala, 3.100 plaza daude guztira, eta banaketaren lehen goizean bakarrik dorsala kopuru osoaren %10 inguru saldu zutela nabarmendu dute antolatzaileek.

Izen-emateaz gain, Minbiziaren Aurkako Elkartek gaixoentzako zein familientzako eskaintzen dituen doako zerbitzuen inguruko informazioa ere jaso ahal izango dela azaldu dute antolatzaileek. Horien artean daude arreta psikologiko, sozial eta juridikoa; material ortoprotesikoaren eta ileordeen mailegua; fisioterapia saioak; eta ariketa fisikoa eta elikadura egokia sustatzeko programak, besteak beste.



Eli Bermudez eta Angela Rabadan, dorsala salmentaren lehen egunean. A. GOMEZ



Iaz bildutako dirua Andrea Saez de Camara doktoreak zuzendutako CAR-NK off-the-self immunoterapia proiektua laguntzera bideratu zen. A. GOMEZ

Dorsalak agortu arte

Ermuko Minbiziaren Aurkako Elkarteko kide eta boluntarioak Merkatu Plazako lokalean egongo dira dorsala guztiak agortu arte. Martitzenetik barikura 10:00etatik 12:00etara egongo dira goizez eta 17:00etatik 19:30era arratsalde. Zapatuan, berriz, goizez bakarrik zabalduko dituzte ateak, baina ordu bete gehiago, 10:00etatik 13:00etara.

Hiru kilometro eta erdiko martxa 'berdea'

Azken urteetan bezala, 3.400 kilometroko luzera izango du martxa. Nork bere erritmoan egin ahal izango du, korrika zein oinez, baina bi orduko epea emango dute Orbe Kardinala plazan egongo den helmugara ailegatzeko. Bertan, gazteak kontzientziatzeko ekintza ugari egongo dira eta herritarrek aurtengo diru-bilketaren bidez lagunduko den proiektuaren berri jaso ahal izango dute.

Parte-hartzaile denak helmugaratzen direnean, dorsala guztiak salduz lortuko diren 31.000 euroen dohaintza ekitaldia egingo dute plazan. Aurtén, *Prostatiko minbizian kastrozioarekiko erresistentziaren azterketa terapia zuzendu berriak* ikerkuntza-proiektura bideratuko dute dirua. CIC bioGUNEko Laura Bozal ikertzailea da proiektuaren arduraduna, eta martxaren egunean Ermuan izango da, txeke sinbolikoa jasotzen.

Pedalei eragiten bukatuko dute Mugikortasunaren Astea

A.G.

Urtero bezala, Europako Mugikortasunaren Astea batu da Ermua, Udalak, ikastetxeek eta txirrindularitza elkarteek antolatutako ekintzekin. Egun nagusia domeka honetan izango da, eta ekintza ugari antolatutako San Pelayoko parkean: 10:30ean hasita, bizikletak konpontzeko eta egokitzeko tailerra egongo da, Kalapie elkartearen eskutik. 11:00etan, Ermuko Txirrindulari Eskolaren ginkana egongo da, ume eta gaztetxo guztientzako zirkuitu irekiarekin. Eguerdian, ohiko martxa zikloturista egingo dute Ermuko kaleetan. Irteera parkean bertan izango da, 12:00etan, eta umeek zein nagusiek hartu ahal izango dute parte.

Ginkanak eskoletan


Datorren astean, ikastetxeetatik pasako dira Ermuko Txirrindulari Elkarteko kideak, LH6ko ikasleei bizikletan ibiltzeko teknikak erakusteko. Martitzenean, Eskolabarrikoe-kin egongo dira, Aritzemendi frontoian; egunean, San Pelayo ikastetxeko patioan muntatuko dute zirkuitua; eta bari-kuan, San Lorenzon.



IRAZABAL
clínica dental

HELBIDE BERRIA!
Blas Etxebarria, 3 - 20600 EIBAR
943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Irribarreetan adituak, etor zaitez gu ezagutzera



Ainhoa Zulueta doktorea





Hiru Txikiak Traila, iaz. EMILIO JOSE CARRAL



Jone Frontaura, Carla Pascual eta Jeslin Romero helmugaratzen, iaz. OSCAR BLANCO

Hiru Txikiak Trail, gero eta erreferente handiagoa mendiko korrikalarientzat

Kanariar uharteetatik, Mallorcatik eta Paristik ere etorriko dira korrikalariak

Garazi Mendieta

Mendiko korrikalarien topaleku bihurtuko da Ermua bihar, irailak 19. Hiru Txikiak Trailak bosgarren aldia izango du, eta 1.200 parte-hartzailetik gora bilduko ditu Urko, Oiz eta Egoarbitza zeharkatzen dituen probak. Izen-emateen jatorriak, gainera, agerian uzten du lasterketa dagoeneko udalerritik eta ingurutik harago iritsi dela: parte-hartzaileak hoge probintzia baino gehiagotatik iritsiko dira; Kanariar uharteetatik, Mallorcatik eta baita Paristik ere. Antolatzaileen esanetan, lehen edizioan 450 lagun inguruk hartu zuten parte, eta, bost urteren ondoren, kopuruak hirukoitza gainditu du.

Parte-hartzearen dimentsioa bereziki nabarmena da aurten, modalitate guztietako dortsalak agortu baitira. 42 kilometroko Trail modalitateko 350 dortsalak 90 minutuan saldu ziren, eta Txiki Traileko 150 plazak ere bete dira. 27K Trailak eta Gazte Trailak ere ez dute lekurik libre utzi. Gainera, azpimarraztekoa da probak bertakoen babes handia duela, korrikalari gehienak ermuarrak baitira, nahiz eta Estatuko hainbat txokotatik ere etorriko diren.

27 kilometroko erronka berria

Bosgarren edizioak berritasun nagusi bat izango du kirol arloan: 27K Trail proba. Ibilbide berriak 27 kilometro eta 1.500 metro inguruko igoera izango

ditu, eta, horrela, antolakuntzak beste aukera bat eskaini nahi die mendian korrika egiteko prest daudenei, 42 kilometroko probaren eskakizunari aurre egin gabe.

42 kilometroko proba klasikoak bere horretan jarraituko du, 2.100 metroko igoerarekin, eta bi modalitatetan egin ahal izango da: Trail kronometratuan edo lehiarik gabeko Martxan. Bi kasuetan, ibilbideak Hiru Txikiak izenari zentzua ematen dioten hiru tontorrek lotuko ditu: Urko, Oiz eta Egoarbitza.

Proba klasikoko korrikalariak, gainera, beste pizgarri bat izango dute aurten: 500 euroko saria izango da iazko marka hausten duenentzat. 2025ean, Julen Olaiolak ezarri zuen gizonezkoen marka, 3 ordu eta 52 minutuko denborarekin; emakumezkoetan, berriz, Sonia Lopezek egin zuen denborarik onena, 4 ordu, 34 minutu eta 30 segundotan. Biak ermuarrak dira, eta bihar ikusiko da ea aurten norbaitek etxeko errekorrak gainditzea lortzen duen.

Adin guztietarako probak

Hiru Txikiak lasterketak ez ditu esperientziadun korrikalariak bakarrik hartuko. Gazteek ere beren proba izango dute, eta Gazte Trailak 12 kilometro eta 560 metro inguruko igoera izango ditu. Proba Aixolako presan hasiko da eta parte-hartzaileak autobusez eramango dituzte irteera-gunera.

Kategoria horretan, gainera, emakumeen parte-hartzea bereziki nabarmenduko da. Parte-hartzaileen %53 neskak izateak emakumezkoen presentzia handia erakusten du gazteen artean. Antolakuntzak hamargarren ediziorako proba osoan parekotasuna, %50-%50ekoa, lortzea du helburu, eta Gazte Traileko datuek norabide horretan aurrera egiteko aukera erakusten dute.

Eta txikienek ere izango dute egitarauan beren lekua. Txiki Trail hiru adin-tartetan banatuko da: 2 eta 4 urte bitarteko haurrek 150 metroko ibilbidea egingo dute; 5 eta 9 urte artekoek, kilometro batekoa; eta 10 eta 14 urte bitartekoek, 1,5 kilometrokoa. Guztira, 150 dortsalak agortu dira.

Goizean goizetik hasiko da egitaraua

Biharko jardunaldia goiz hasiko da. 06:45ean irekiko dute Merkatu Plazan dortsalak jasotzeko gunea, eta paellarako txartelak ere bertan erosi ahal izango dira. 08:00etan abiatuko da Martxa, eta 09:00etan 42K Trailaren txanda izango da.

1.200 parte-hartzailetik gora bilduko ditu Hiru Txikiak mendi lasterketak

27K Trailak 10:00etan izango du irteera, eta 10:15ean Txiki Traila aterako da.

Gazteen proba 11:00etan hasiko da, Aixolako presan. Lehen korrikalariak 12:30 inguruan iristea aurreikusten du antolakuntzak, baina lasterketa 18:00etan itxiko da. Ordu berean egingo dute sari banaketa, San Pelaio parkean.

Ibilbidean zehar, gainera, hainbat animazio-gune izango dira: Elektrojaia arduratuko da musikaz Oizko 7. erroten, txalapartariak izango dira Oizko tontorrean, eta DJ eta esatariak arituko dira Aixolako presan. Horrela, parte-hartzaileek ibilbidean zehar herritarren eta zaleen animoak ere izango dituzte.

Menditik kalera, eta gauera arte

Lasterketaren bosgarren aldia ez da helmugan amaituko. 18:00etan, sari banaketa egingo dute San Pelaio parkean, eta ordu erdi geroago hasiko da Primo Bayoren Disco Party ibiltaria. Parketik abiatuta, musika-saioa herriko hainbat gunetara mugituko da. Ostean, Sagarra izango da azken txanpako topagunea, eta 00:30ak arte girotuko dute festa; besteak beste, Diego Lavidia DJ sevilarra eta Javier Ganuza arduratuko dira musikaz.

Ermuko mendiak beste behin ere herrikoak eta kanpotik etorritakoak elkartzeko gune bihurtuko dira, eta bosgarren edizioak erakutsiko du Hiru Txikiak Trail dagoeneko ez dela bertakoentzako hitzordua soilik: Estatuko hainbat txokotatik etorritako korrikalari eta mendizaleek ere izango dute Ermua abiapuntu eta helmuga bihar.

Lesio batek SD Eibarrekin jokatu ezinik laga du Eric Perez

Ander Gomez

Denboraldia hasi berri den arren, zelaia laga behar izan du Eric Perez Albarranek, lesio baten ondorioz. Barakaldon lagata jokatzetik ailegatu da SD Eibarren talde nagusira, eta, joan den astean BARRENARI eskainitako elkarriketan adierazi zuenez, bertan bizi izan ditu "momenturik gozoenak, tartean izandako lesio bat salbu". Bada, egoera berean dago orain aurrerari ermuarra.

Abuztuan, Teneriferen kontra jokatu ostean, mina sumatzen hasi zen eskuineko hankan, eta bigarren jardunaldian deialditik kanpo laga zuen harrobiko urteetan entrenatzaile izan zuen Jokin Aranbarrik. Azaldu zuenez, "normala da denboraldi hasieran jokatu gabe lagatzea, badaezpada". Minak, ordea, okerrera egin zuen, joan den asteko entrenamenduetako bat laga behar izan zuen arte. Gerora egindako azterketa medikoek baieztatu dute muskulu-haustura bat duela iskiotibialean.

Hala ere, lesioa ez dela larria eta "ondo" dagoela argitu du ermuarrak, eta laster bueltatuko dela taldearen dinamikara: "azken bi partida hauek kanpoan egongo naiz, badaezpada, eta, ezustekorik egon ezean, datorren astean bueltan izango naiz".



Eric Perez, Areition entrenatzen. SD EIBAR

Doinu, erritmo eta instrumentu tradizionalak bete du Ermua Folkez Blai jaialdiak

Estatu osoko folk taldeak aritu dira lehian; herritarrek instrumentu bereziak ikasi dituzte; eta denak batera ibili dira, kalejiran egunez eta 'jam session'-etan gauez

Ander Gomez

Gaur zortzi, Musker bikoteak –iaz bigarren sailkatutako Harribitxi taldeko Iker Gonzalez kide duena– txistu doinuekin zabaldu zuen 21. Folkez Blai lehiaketa. Ondoren, Folk Rippers taldeak hartu zuen lekukoa, euren burua definitzen duten bezala, "kanta tradizionalak fusio-natu eta *destripatuz*". Zapatuan, egungo instrumentuekin ere folka egin daitekeela erakutsi zuen Esporak; eta Valentzia-ko Anima hirukoteak mende erdi atzera *la terreta* alaitzen zuten kantekin dantzan jarri zuen plaza. Domekan, hogeitau lagunetik gorako Talisker Bandek hartu zuen taula gaina, eta, esan zuten, talde erdia baino ez zen etorri, dantzari guztiak gaixo zeuden eta. Bukatzeko, Ferla Megia gazte asturiarrak doinu tradizionalak egungo erritmo elektronikoekin nahas daitezkeela erakutsi zuen, eta, artista bakarra izanda ere, eszenatokia berdin-berdin bete daitekeela.

Epaimahaiaren balorazioa

Antolatzaileek ontzat jo dute lehiaketaren 21. aldia. Maila handiko musikariak aurkeztu direla kontatu dute, eta estilo aniztasuna azpimarratu: "Batziek doinu tradizionalak berreskuratzearen alde egin dute, bestetziek folka gaiko soinu eta erritmoekin fusioatzeko arazorik ez dagoela garbi utzi...". Hiru egunotan gozamen izan den kalitate musikal hori, ordea, buruhauste bihurtu da epaimahaiarentzat kontzertuak bukatu bezain pronto: "Debate

polita izan dugu irabazleak aukeratzeko orduan", kontatu dute, barre artean. "Eskerrak talde bateratua gara; askotan, hobe da bakoitzak berera jotzea eta gerra pixka bat egotea, erabakia hobe izan daitekeelako; baina guk ikuspegi antzerakoa dugu eta ados jarri gara".

Horrela, euskal, irlandar, eskoziar, errumaniar eta greziar doinuak fusioatzen dituen Folk Rippers taldeari eman diote lehen saria; 3.500 euro eta jaialdiaren 22. aldian jotzeko aukera. Bigarren sariaren 2.500 euroak, berriz, Kataluniara joan dira: Esporaren jazz fusioa saritu dute.

Tailerak eta 'jam session'-ak

Jaialdiak barne hartu zituen gainontzeko ekintzekin, garbi laga dute Folkez Blai lehiaketa batez harago doala. Zapatuan, instrumentuak ikasteko saioak egin zituzten Alboka Musika Eskolan. Parte-hartze handia izan zen; biolinarena ez zen egin, eta gainerakoetan bete egin ziren plazak: flauta eta *whistle*-a, *bodhran*-a, *bouzouki*-a eta gitarra, eta panderoa.

Gainera, egun bakoitzeko kontzertuak bukatutakoan, lehiaketako partaideek, tailerretako irakasle eta ikasleak, antolatzaileak eta animatu zen bisitari bat edo beste Mallabian batu ziren gauez, elkarrekin jan, edan eta musika inprobisatuz gaua igarotzeko. Azken finean, hori baita antolatzaileen helburua eta horretarako sortu zen jaialdia, "folk musika jendearekin partekatu eta bizirik mantentzeko".



Espora, txapeldunordeak. A. GOMEZ



Folk Rippers, aurtengo irabazleak. GARAZI MENDIETA



Jaialdia posible egiten duten Udaleko ordezkariak eta Folkez Blai-ko antolatzaileak. A. GOMEZ



Kontzertuen ostean, Mallabian batzen ziren musikariak, elkarrekin jotzeko. F.B.



Jam session-ean inprobisatzen. F.B.



Pandero ikastaroan. A.M.E.



Txirula irlandarraren tailerra bukatu ostean. ALBOKA MUSIKA ESKOLA

Ermua-Mallabia OLHUIk batezbestekoa gaintitu du Heziketa Dualean

Ikasleek eta enpresek 2025-2026ko ikasturteko esperientzia positibotzat jo dute

Garazi Mendieta

Ermua-Mallabia Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutuak Euskadiko batezbestekoa gaintitu du Heziketa Dual Orokorraren inguruko gogobetetze-mailan. 2025-2026ko ikasturteari dagokion ebaluazioan, ikasleek zein prestakuntzan parte hartu duten enpresek modu positiboan baloratu dute esperientzia, eta jasotako emaitzak Euskadiko batezbestekoaren gainetik kokatu dira.

Iazko ikasturtea berezia izan zen zentroarentzat; izan ere, lehen mailako ikasleek lehen aldiz parte hartu zuten Heziketa Dual Orokorrean. Eredu horren bidez, ikasgelan jasotako prestakuntza enpresetako esperientzia praktikoarekin uztartzen dute ikasleek, eta, horrela, lan-munduarekin lehen harremana izateko aukera dute ikasketak egiten dituzten bitartean.

Lehenengo esperientzia hartan, gainera, hainbat enpresa berri batu ziren programara, eta zentroaren eta inguruko enpresen arteko lankidetzak indartu egin zen. Ikasleen prestakuntzaren eta enpresen beha-



Ermua-Mallabia OLHUI eraikina. G. MENDIETA

rren arteko lotura sendotzea da Heziketa Dualaren helburuetako bat.

Ikasleen balorazioa, Euskadikoaren gainetik

Ebaluazioaren arabera, ikasleek bostetik 4,72 puntu eman dizkiote, batez beste, enpresan egindako prestakuntzari. Euskadiko batezbestekoa, berriz, 4,21 puntukoa izan da.

Ikasleek bereziki positiboki baloratu dute ikastetxeko tutoreak egindako jarraipena, alderdi horrek 4,93 puntuko

puntuazioa lortu baitu. Halaber, enpresan egindako zereginak ikasketa-zikloan landutako edukiekin duten lotura ere nabarmendu dute, 4,72 punturekin.

Datu horiek erakusten dute ikasleek modu positiboan bizi izan dutela ikastetxean jasotako prestakuntza eta enpresako egonaldi praktikoa uztartzeko aukera. Esperientziak, beraz, aukera ematen die ikasitakoa lan-ingurune errealean aplikatzeko eta lan-munduaren egunerokotasunarekin harremanetan jartzeko.

Enpresen aldetik ere, emaitza positiboak

Enpresek egindako balorazioa ere Euskadiko batezbestekoaren gainetik dago. Guztira, 4,54 punturekin baloratu dute esperientzia, eta batez besteko orokorra 4,41 puntukoa izan da.

Horrez gain, enpresek programan parte hartzen jarraitzeko duten prestutasunak ere puntuazio nabarmena jaso du. Zehazki, 4,62 puntuko balorazioa eman diote etorkizunean berriz ere ikasleak hartzeko aukerari. Horrek erakusten du zentroaren eta enpresen arteko lankidetzak jarraipena izateko aukera badiela.

Bi aldeek egindako balorazioek, gainera, Heziketa Dual Orokorraren garapenean parte hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioaren garrantzia erakusten dute. Ikasleen esperientzia, ikastetxeak egindako jarraipena eta enpresen inplikazioa batera aztertuta, 2025-2026 ikasturteko lehen esperientziak emaitza positiboa izan du zentroarentzat.

Emaitzek, oro har, Ermua-Mallabia OLHUIk prestakuntza eta lan-mundua lotzeko egindako apustua indartzen dute. Aldi berean, inguruko enpresen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzen dute, ikasleek ikasketak amaitu aurretik lan-ingurune errealean bat eza gutzeko eta bertan esperientzia eskuratzeko aukera eskaintzeko.

Astelehenean amaituko da surf txangoan izena emateko epea

G.M.

Ermuko Gazteria Zerbitzuak surf txangoa antolatu du Debara irailaren 26rako, 2010 eta 2014. urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta. Jarduerak surf saioa eta hondartzan aisialdia uztartuko ditu.

Parte-hartzaileak 09:50ean elkartuko dira, Ermuko tren geltokian, eta surfa egin ostean denbora libre izango dute hondartzan. Ermura 14:20 inguruan itzultzea aurreikusi dute. Txangoa doakoa izango da, baina gazteek Barik edo Mugi txartela eraman beharko dute, baita bainurako arropa, eskuoihala, txankletak eta eguzki-krema ere.

Plazak mugatuak dira, eta izen-ematea irailaren 21era arte egin ahal izango da, Udalaren webguneko formularioa beteta. Eskaria plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo dute, eta Ermuan erroladatutako gazteek lehentasuna izango dute.

Kirol jardueraz gain, txangoak esperientzia berri bat bizitzeko eta beste gazte batzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko du, naturarekin eta itsasoarekin lotutako aisialdi proposamen baten bidez.

Galiziako enpanadak, ardoa eta musika, zapatu eguerdia alaitzeko

A. Gomez

Asteburuko egitaraurik potoloena Hiru Txikiak Trailak izango du, baina aurretik ospatzen zen tradizioa ez da faltako biharko egunean: Enpanadaren Jaia.

Galiziar Zentroak antolatzen du eta 17. aldia izango da aurtengoa. Festa 11:00etan hasiko da, Orbe Kardinalaren plazako txosnaren irekierarekin. Zentrokoek azaldu dutenez, berrogeita hamar enpanada inguru izango dituzte, eta zatika salduko dira, izakinak agortu arte, Ribeiro ardoarekin batera.

12:00etan, berriz, Eibarko Kultur Etxeko Os Galaicos taldea arituko da gaita, soinu, pandero eta bestelako perkusio instru-

mentuekin galiziar kantuak interpretatuz. Ondoren, Galiziar Zentroan elkartuko dira bazkide eta musikari guztiak, elkarrekin bazkaltzeko.



Herritarrek enpanada erosten, iaz. A.G.

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian edo
www.barrena.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

AMALUR
FISIOTERAPIA

688 619 896
Zeharkale, 12 behe
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

50 ARTARRAI
MENDI TALDEA - ERMUA

Ekinez ekin bidean darrai

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK

Valdespina Markesa 16 - ERMUA
605 71 10 81

ZK
ZUZENBIDE
KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Zerbitzuen gida

**Ezagutarazi zure zerbitzua
Debabarreneko herrietan**



**24 €
Hilean**

24 euroren truke, hilerio zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!



Erakusleihoa

BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleho ikusienetakoa da.



**10.500 ale
astero**

10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOAN!

AROTEGIAK

DEKORAZIOA

ERABERRITZEAK

Jarri zure
publizitatea

MEKANIKARIAK



Ermuarenbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



**FATXADA BIRGAITZEAK
ETA ERREFORMAK**

ELGOIBAR SORALUZE
943 74 42 23 943 12 57 41



ITURGINTZA



SORALUZE MOTOR

Mendiola Ind. 13 Soralueze

476 556 817 - 943 75 21 38

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

www.soraluze.com

Jarri zure
publizitatea



Elektrizitatea Iturgintza
Igeltseritza Pintura

EXGA S.L.

679 623 584 Soralueze

Jarri zure
publizitatea



Aluminio eta PVC aroztégia

662 234 609

odrilehoak@gmail.com

Sagar Erreka Kalea 2, 20590 SORALUZE

Mota guztietako leihoak, sementa eta konposakak.

Atsek, lehioak, pertsonak, barandilla, altak, sareak

eta toloak jartzen ditugu.



amante dekorazioak

industrialak

Tel. 943 75 13-24 Mug. 652 77 70 30

**Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo
Whatsappera idatzi telefono zenbaki honetara:**

688 76 96 57

Mallabiko Mendizaleek irteera zirkular sortari ekingo diote, eta Arietzura igoko dira

Zapatu honetan egingo dute, doakoa da, eta izen-ematea zabalik dago

Ander Gomez

Mallabiko Mendizaleak ekimenaren sorreran antolatzaileek esplikatu zuten, uztailko Deba-Zumaia arteko ibilbidearen ostean eta ikasturte berriarekin batera, Mallabia inguruko irteeren antolakuntzan zentratuko dira. Hasiera honetan, bertako paisaia –"gure bidexkak, iturriak, gurutzeak..."– goitik behera ezagutzea dute helburu, eta, aldi berean, ahalik eta desplazamendu gutxien ekarriko duten irteerak izatea. Horregatik, herri inguruan izateaz gain, zirkularrak izango dira denak.

Bestalde, zailtasun maila ere orekatzen saiatuko dira. Uztailko "gogor samarra" zela uste dute; eta orain, familientzako "aproposagoak" izan daitezkeen ibilbideak prestatu nahi dituzte: "Betiere, mendizale beteranoen-

tzat erakargarri izaten jarraituko dutela zainduz".

Domeka honetan egingo dute lehena, eta estreinako irteerarako ez zegoen Arietzuko ton-torra koroatuko zuena baino aukera aproposagorik. Bedera-tzi kilometro izango ditu, eta 329 metroko desnibel positiboa. Irteera plazan izango da, 09:00etan, eta hiru orduan egitea aurreikusi dute.

Parte-hartzea doakoa da, baina derrigorrezkoa da izena ematea; dagoeneko hogeitaz lagun baino gehiago daude izena emanda, eta bezperara arte egongo da batzeko aukera. Interesa dutenek 670 23 70 27 (Koldo) edo 669 02 87 18 (Carlos) Whatsapp zenbakietara idatz dezakete.

"Arrakastatsua" izan zen lehena

Uztailaren 19an egin zuten flyscha ezagutzeko irteera. Goizean goiz

Zaldibarren trena hartu eta Deban hasi zuten hamasei kilometroko ibilbidea. Bost orduz "igoe-ra eta jaitsiera pila" egin behar izan bazituzten ere, ahaleginak merezi izan zuela diote, "Kantauri itsasoaren, itsaslabarren eta flyscharen ikuspegiez gozatzeko, zein bertako basoak eta txakolina egiteko mahastiak gertutik ezagutzeko". Bero handia egin zuenez, bidean hainbat geldialdi egin zituzten, freskatzeko eta mokadutxo batekin indarrak berritzeko, eta Zumaia-ko San Telmo ermitan bazkaldu zuten, Itzurun hondartzari begira. Ondoren, Zumaian tragotxo hartu eta trenez bueltatu ziren. Antolatzaileen esanetan, "mallabitarron arteko loturak sendotzeko ekintza ederra izan zen", baita "Mallabiko Mendizaleak-en hurrengo irteerak prestatzen hasteko bultzada handia" ere.



Lehen irteerako partaideak, flyscharen aurrean. ALAITZ MARTIN



Ibilbidearen hasieran, Deban. J. VEJO



Santa Katalina ermitan. M.M.

Elizpeko Txapelketak zortzi bikote bilduko ditu aurtengo edizioan

Ander Martin Memorialaren bigarren aldia izango da aurtengoa

Garazi Mendieta

Mallabiko Elizpea pilotazalek beteko da datozen asteetan, beste behin. Elizpeko Txapelketa asteazkenean hasi zen, eta aurtun zortzi bikote arituko dira lehian. Parte hartzaile gehienak mallabitarrak dira, baina Berrizko eta Ermuko bikote bana ere izango da txapelketan. Partidak ostiraletan jokatu dira, 18:30ean, eta finala urriaren 23an jokatu da, Mallabiko jaien egitarauaren barruan.

Txapelketako lehen hiru partidak asteazkenean jokatu ziren, eta emaitza parekatuak utzi zituen lehen jardunaldiak. Xabierrek eta Mikelek osatutako bikoteak 22-19 irabazi zien Xabati eta Eguri; ondoren, Mikelek eta Koldok 22-15 hartu zituzten mendean Xabat eta Egu; eta, azkenik, Mikelek eta Koldok



Iazko irabazleak eta Ander Martinen senideak. ELIZPEKO TXAPELKETA

22-9 irabazi zieten Xabierri eta Mikeli.

Ander Martin gogoan

Iaztik, Elizpeko Txapelketa Ander Martin Memoriala ere bada. Ander Martin Estenaga malla-

bitarra 2025eko uztailan hil zen, eta, haren omenez, txapelketari haren izena jartzea erabaki zuen antolakuntzak. Izan ere, Martinek bizitza osoa eman zuen pilotari lotuta: umetan hasi zen jokatzeko, eta urteetan

hainbat txapelketatan parte hartu zuen. 2003an, gainera, *handball* modalitateko munduko txapelketa irabazi zuen Mikel Gonzalez berriztarrarekin batera.

Pilotari izateaz gain, Martinek urte luzez jarraitu zuen pilota munduari lotuta; besteak beste, trinketeko entrenatzaile eta hautatzaile lanetan. Haren anaia Unaik ere parte hartu izan du Elizpeko Txapelketan, eta aurtun ere faboritoen artean dago.

"Anderrek pilota bere barruan zeraman beti, eta haren omenez zerbait egitea okurritu zitzaidan", azaldu du txapelketaren antolatzaileak. Haren esanetan, anaiak txapelketan parte hartu izanak ere eragin zuen haren omenezko memoria antolatzea.

Datozen asteetako partidek, beraz, Mallabiko urriko jaiei begira, giroa berotzen lagunduko dute. Ostiralero Elizpean pilota izango da protagonista, eta azken hitzordua, urriaren 23ko finala, jaietako egitarauaren barruan egongo da. Horrela, herriko pilota zaletasunak eta jai giroak bat egingo dute, beste urte batez.

Bakarkako Frontenis Ligaren finalak jokatu dira domekan



Eskolako frontoian jokatzeko. C. PEREZ

Irailaren 4an hasi zen frontenis liga, eta asteburu honetan bukatuko da. Lehen bi faseak jokatu dira, zortzi jokalar sailkatu dira finalerako. Hilaren 20an, 09:30ean, Xabier Lezeta eta Urko Hernandez lehiatuko dira lehengo; Markel Bravo eta Mikel Rodriguez bigarren; Andoni Aldape eta Jon Gandiaga gero; eta, azkenik, Ander Elorriaga eta Mikel Sanchez. Finalerdiak 11:10ean hasiko dira, eta 22 tantora beharrean 18ra jokatu dira. Finala 12:20 aldera izango da, 16 tantora, eta 15 minutuko iraupenarekin, gehienez.

Herriko hizlariak zein adituak nagusi JendartEKINek antolatutako egitasmoetan

Bi ikasturteotako partaideek "gogobetetze maila handia" dute ekimenarekiko

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Irailaren 25era arte zabalik dago 2026-2027ko ikasturtean JendartEkin ekimenen izena emateko epea. Askotariko gaietako buzko hitzaldiak, tailerrak eta bisita gidatuak uztartuko dituzte bertan, 55 urtetik gorako pertsonetara zuzenduta, azken bi ikasturteotan egin duten moduan.

Horixe nabarmendu dute ekimeneko orain arteko partaideek, "programazioak modu orekatuan" konbinatzen dituztela JendartEkinen, "etxeko hizlariak eta kanpoko aholkariak bakoitzak bere ezagutza eta esperientzia emanez". Halaber, gaiak ikasgelan lantzeaz aparte, "inguruko museo eta leku interesgarrietara egindako bisitek kultur proposamen zabala eta orekatua" osatu dutela ere esan dute. Eta, oro har, euren artean "gogobetetze-maila handia" dute Jen-



jendartEkinen kideak Jabi Elortza historialariarekin bisita gidatua, iaz. U.M.Z.

dartEkinen. Orain, abendura arteko egitaraua antolatu dute (Beheko taulan).

35 lagun, gehien jota

JendartEkinen urteko matrikula 50 euro da. Izena emateko bi bide daude: www.labur.eus/

jendartEkin2026 edo udaletxeko harreraren (10:00-14:00). 35 lagunendako lekua dago, eta jendea onartuko dute izen-emate ordenaren arabera. Halaber, asistentzia konpromisoa edo gutxieneko maiztasuna izatea eskatzen dute.

Eguaztenetik aurrera hartu ahal izango da odola emateko txanda

U.M.Z. SORALUZE

Hilaren 25ean, barikua, odol ateratzea egingo dute Itxaropena Erretiratuen Elkartean. Ohi denez, bi egun lehenago dago txanda hartzeko aukera, eguaztenean zein egunean, Gotatanta.eus-en. Bestela, barikuan 943 00 78 85 zenbakira deituta ere har daiteke txanda. Odol ateratzeak 16:30etik 20:30ak arte egingo dituzte, eta 18 eta 70 urte arteko pertsonetara eman dezakete.

O- eta B- odolak behar dira

Euskadiko Odol Emaileen Elkartearen arabera, behar handia dago O-, B- eta AB- odol motetan, eta behar ertaina O+ eta A+ odoletan.

Soraluzen uztailean egin zizuten azkeneko odol ateratzeak, eta 23 lagun bakarrik bertaratu ziren.



Oihana Uribe odola ematen. B. OLAIZOLA

Gipuzkoako masail lehiaketan, soraluzetarrak ordezkari

U.M.Z. SORALUZE

Irailaren 23an, eguaztena, Gipuzkoako Masail Lehiaketa jokatu da Arrasaten, Musakolako elkartean, Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkartek (Agijupens) antolatuta. Bost bikote lehiatuko dira, bakoitzak eskualde bat ordezkatu du, eta Debabarrenaren izenean Soraluzeko Iñaki Iñarra eta Abel Olaizola bikotea bertaratu du.

Soraluzen garaile

Soraluzen ekainaren 26an jokatu zen masail lehiaketa lehen aldiz. Bost bikote aurkeztu ziren, eta Eibarko Untzaga Jubiletxeko eta Elgoibarko Jubilatuen

Biltokiko ordezkariak osatutako epaimahaia Iñarrak eta Olaizolak prestatutako errezeta aurkeztu zuen garaile.



Iñarra eta Olaizola, irabazi berrian.

Hitzaldiak, tailerrak eta bisita gidatuak antolatu dituzte

Urte amaierara arteko ekitaldiak

Iraila

- 30 *Grabatuaren teknika* hitzaldia. Baroja Collet, Oreka Art galeria.

Urria

- 15 *Argazkilaritza mugikorrarekin* tailerra. Bittor Murguzur, KLB8.

- 21 Bisita gidatua Beizamako txakolindegira.
- 26 Teknologia tailerra. Niko Morillo, KLB8.
- 28 *Haurren eskubideak* hitzaldia. Maider Gabilondo, KLB8.

Azaroa

- Eguna, zehazteko, Arte Ederren museora bisita gidatua.

- 18 *Colon placentino* hitzaldi irekia. Jesus Galarraga, Tolarekua.
- 25 Teknologia tailerra. Niko Morillo, KLB8.

Abendua

- 2 Teknologia. Morillo, KLB8.
- 9 *Bergara monumentala* bisita gidatua.
- 16 Hitzaldia, zehazteko.

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
474 556 817 - 943 75 21 38

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 509
Sagar Errota Kalea 2 - 20960 SORALUZE
e-mail: odrlehoak@gmail.com

MENDIZABAL
okindegia
Ogi - Puntia - Gosariak
Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30
Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura
EXGA S.L.
679 623 584
Soraluze

laibi25
urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

ELIZPE
HORTZ KLINIKA
Tel. 943 75 25 67

Batzoki
Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze)
Erreserbak:
638 91 15 97

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tornilleraaras.com
www.tornilleraaras.com

"Memoria eta aitortua izateko eskubidea bermatuko dituen lege-erreforma" aldarri

Asier Herizen eta Iñaki Saezen heriotzaren 25. urteurreneko ekitaldia izan zen

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Ekitaldi "hunkigarria" egin zuten joan den zapatuan, Asier Herizen, Iñaki Saezen eta Irantzu Benitoren istripuaren 25. urteurrenaren harira. Herrikidez eta bisitariz bete zen Plaza Barrixa, istripua jasan zutenen senideak eta lagunak ere bertan zirela. Gazteekiko oroimena eta gertatutakoa salatzekeo aldarrikapena, bietatik izan ziren plazan, baina, batez ere, samina eta tristura gailendu ziren. Poemaz, bertsoz, dantzaz, musikaz, lore eskaintzaz eta bi gazteen lagunak berbez jantzi zuten ekitaldia.



Agurra dantzatu eta lore eskaintza egin zuten. U.M.Z.

Lege erreforma

Asier Heriz eta Iñaki Saez Avilan preso zegoen Lourdes Txurruka herrikidea bisitatzeraz zihoazela hil ziren, auto-istripuz, 2001eko irailaren 8an. Eta, hain justu, euskal presoei ezarritako salbuespenezko neurriak salatu zituen Egiari Zor Fundazioaren izenean Soraluze izan zen Pilar Garaialdek; tartean, senideak eta lagunak errepidean milaka kilometro egitera behartu zituen urrunketa.

Garaialdek adierazi zuen urruntzeak "senide eta lagunei *ad hoc* kondena ekarri eta espetxeratu-



Babesa eta elkartasuna adierazi zieten hildakoen senideei. U.M.Z.

takoei zigor bikoitza" ezarri zielela, "gizagabekoa" izan zela; hala-ber, jakinarazi zuen "demokrazia deritzon garai honetan" 36 euskal preso politikok eta 16 senidek galdu dutela bizitza, "sistematikoki aplikatu diren salbuespen neurrien ondoriozko egoera desberdinetan" eta beste bik bere buruaz beste egin zutela espetxeratzea saihestu nahian.

Azpirarratu zuen heriotza horiek ekidin zitezkeela eta "presoen eta haien familien aurka zeharka eragindako bortxa-adierazpenek" ere lekua behar dutela gizartearen memorian eta aitortzan. "Urruntzea bezalako helburu politikoa zuten neurriak ezartzeak ez zuen justifikaziorik izan inoiz, eta, are gutxiago, neurri horiek espetxe jurisdikzioetik kanpoko pertsonen zuzenean eragiten bazieten, senideak eta lagunak kasu. Beraz, ez dugu etsiko. Euskal aitortzarako legea zaharberritzea eta eskaera berriak izapidetzeko epe berri bat ezartzea beharrezkoa da. Presoen eta haien familien aurka zeharka eragindako bortxa adierazpenek ere lekua izan dezaten".

Horregatik, Egiari Zor Fundazioako ordezkariak memoria eta aitortua izateko eskubideak aldarrikatu zituen, "gizarte plural batean bizikidetzatza demokratikoa garatzeko beharrezko ariketa gisa ulertuta". Esan zuen memoria ezin dela "ikuspegi partikular eta alderdikoekin zerikusi handiagoa duten interesetara mugatu; are gutxiago, jasandako urraketak aitortzeko eskubidea".

Jendea Mesedeetako jaietara joango dela espero dute

U.M.Z. SORALUZE
Guztia gertu eta Jai Batzordea indartsu dago gaurtik domekara bitartean ospatuko diren Mesedeetako jaietara joango dela espero dute jendea animatzea eta parte hartzea, esan dute Jai Batzordeko ordezkariak. Esaterako, gaur, barikua, mugimendu handia aurreikusita, auzoko txosnan hamabost lagun ibiliko dira txandaka lanean, eta beste zortzi ogitartekoak egiten.

Bihar ere "plan bikaina"

Egitarrari dagokionez, gaurko eguna eta gaua ez ezik, zapatua indartzeko apustua ere egin dute, eta egun mardula antolatu dute. Besteak beste, "plan bikaina" antolatu dute herri-bazkariaren inguruan. Hasteko, menua indartu, eta bazkariak hiru plater gozo eta kafea izango ditu. Hura baino lehen eta ondoren, umeendako eskaintza oparoa izango da: puzgarriak, jolasak Kukumixorekin eta merendola. Eta txapelketak ere aukeran, gustu guztietarakoak: toka, tutea, hiruko areto-futbola, zezen mekanikoa eta mahai-futbola. Eguraldi bikaina iragarrita, "gurean denak dira ongielorrak", diote *barrixo*-koek.



Soraluzeko AEK euskaltegia

2026-2027 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULAZIOA ZABALIK!

irailaren 30era arte

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1, C2
- C2 maila prestatzeko ikastaroa! Galdetu informazioa

Baltegieta kalea, 2 · 943 75 11 43 · soraluze@aek.eus

DIRULAGUNTZA BERRIAK

A1, A2 Euskara bonua

C1 maila (16-18 urtekoentzat)

"Lasterketa kuttunen artean, Karakateko igoera nabarmenduko nuke"

ÍÑAKI GOENAGA ARISTI KORRIKALARIA

Buru-belarri dabil Iñaki Goenaga Aristi korrikalari soraluzetarra; azken lasterketan, bertako errekorra ezarri zuen, eta, oro har, 2026an oso emaitza onak lortzen ari da

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Iñaki Goenaga Aristi korrikalariak (Soraluze, 1994) sasoi onean segitzen duela erakutsi zuen joan den asteburuan Elgoibarren jokotutako Lizagaras erronkan; irabazteaz aparte, probako errekorra ezarri zuen: 50.32.

Pozik egindakoarekin?

Oso pozik. Sentsazioak uste baino hobeak izan dira. Abuztuan oporretan egon ondoren, hiru aste daramatzat entrenatzen, eta ikusi nuen uste baino hobeto nagoela. Lau edizio egin dira, hirutan hartu dut parte eta ibilbidea oso ondo ezagutzen dut: 60 kale sagastietan, 30 aldapa gora eta beste 30 behera, eta oso-oso gogorra da, ordubeteko lana da eta oso-oso ondo erregulatu behar dira indarrak; bestela, oso gaizki pasa daiteke.

Bestelako lasterketetan ere ibili zara 2026an. Zer moduz?

Lasterketa nahikotxo egin ditut. Sentsazioak eta emaitzak oso onak izan dira eta oso gustura nabil. Asko disfrutatzen nabil entrenamenduez, egunerokoaz... Kirol asko egin izan dut beti, asko gustatzen zait, eta, emaitzak onak badira, hobeto. Apirilean egin nuen Mendaroko Kilimon Trail motza, bigarren gelditu nintzen, eta han eman nuen errendimenduekin ere oso-oso pozik. Canfranc-en ere egon zen beste lasterketa bat maiatzean, Canfranc-Canfranc; bigarren izan nintzen. Ez ginen asko, baina ibilbidea gogorra eta polita zen. Nabarmenduko nuke ekainean egin nuen Camille Extreme, Iza-bako lasterketa. 32 kilometro eta 2.000 metro positibo ditu, mendi lasterketan nahiko ezaguna da, korrikalari oso onak joaten dira, eta seigarren egin nuen. Garrantzi nahikoa ematen diot emaitzari. Halako distantzia eta desnibela eta maila ona egoten den las-



Iñaki Goenaga Anboto Bertikala lasterketan, 2025ean. MENDITRAIL

terketa batean aurreko postuetan egoteak ilusio handia egiten du. Eta beste bat Berrizen egin nuen, Amaraune, 21 kilometro eta 1.300 metro positibo; hirugarren gelditu nintzen. Beraz, orokorrean, urtea oso ondo doa, sasoi onago, emaitzak onak dira eta asko nabil gozatzen. Morkaiko taldean hiru urte daramatzat, eta soraluzetar gehiago ere badaude bertan: Aitor Oregi, Aitor Hernandez, Zuhaitz Rodriguez eta Ximun Larrañaga. Gustura nago taldean; bazkariak, afariak... egiten ditu-

"Durangaldeko kopan egiten diren lasterketen ondoren, Sevillako maratokia prestatzen hasiko naiz"

gu, eta taldekideak oso jatorrak dira.

2026a bukatzeko zerbait gehiago duzu aurreikusita? Eta 2027rako? Durangaldeko mendi lasterketak oso-oso politak dira, eta egingo ditut, Mañaritik Atxetara –22 kilometro eta 2.000 metro positibo–, Anbotoko Bertikala, Aramotz eta Aldape. Gero, deskantsu txiki bat, eta, ondoren, saiatuko naiz Sevillako maratokia prestatzen, asfaltoan. Normalean, mendian ibiltzen naiz, baina beste helburu batzuk izatea ere gustatzen zait. Sevillara joango gara Ander Ariznabarreta, Aitor Hernandez eta hirurok. Datorren urtean ere, dena ondo badoa, normalean baino lasterketa luzeagoak egiten ahaleginduko naiz. Kilometro bertikalak eta 20-30 kilometro bitarteko mendi lasterketak egiten ditut, eta datorren urtean mendian mara-

toiren bat egiteko asmoa daukat: Traveseriña probatzeko gogoia dut, Europako mendietan egiten dena; edo Panticosan egiten den Tenako haraneko maratokia.

Egindakoetatik, zein duzu lasterketarik kuttunena?

Karakateko igoera nabarmenduko nuke. Txikitatik eta aspalditik ikustera joan naizen lasterketa da, eta, lasterketetan hasi nintzenean, segituan, 2014an-edo egin nuen. Etxe alboan dago, lagun eta ezagun piloa joaten da, familiako asko... Jende piloa elkartzen da, eta sekulakoa da. Ahalik eta ondoen egin nahi izaten dut, eta asko motibatzen du. Beti saiatu izan naiz ahalik eta ondoen egiten. 2023an, hirugarren postua eskuratu nuen, eta dema izan zen. Anbotoko Bertikalean 7-8. postua lortu izan dut, Sorginen lasterketan 10. postua, Aloñako igoeran 12. postua, Camille Extreme... Lasterketa piloa egiten dira urte batean, eta urte piloa daramatzat korrika; ez da erraza batzuk nabarmentzea. Baina lasterketa politak dira esandakoak, gogorrak, jende ona joaten da, eta halako lasterketetan emaitza ona lortzeari balio handia ematen diot.

Oro har, zein da zure helburua?

Helburua da heziketa fisikoko irakasle izatea; prozesu horretan sartuta nago, eta ordezkapenak egiten ditut. Baina motel doa. Berez, entrenatzaile naiz, goi-mailako kirol zikloa ikasi nuen, GHIN (INEF) karrera egin nuen Katalunian, eta 10 urte baino gehiagoko esperientzia daukat kirolean murgilduta; gustatzen zait gaiari buruz irakurtzea, informatzea zer den onena, zein metodo dauden entrenatzeko, zelan hobetu... Asko gustatzen zaidan mundua da kirolarena. Kirol alorrean, berriz, maratoki batzuekin probatu, lasterketa berri batzuk egin... baina orain arte ibili naizen antzera gustura nabil. Astean sei egunez entrenatzen naiz, eta egun batean atsedean hartzen dut.

Zerbait nahi duzu gaineratu?

Familiari eskerrak eman nahi dizkiot; beti daude hor, ni animatzen, eta hori asko eskertzen da.

"Karakateko igoerara jende piloa joaten da: ezagunak, familia... Horrek asko motibatzen du"

Izena emateko aukera, urriaren 5ean hasiko den Eskola Kirolean

U.M.Z. SORALUZE

2026-2027ko ikasturtean berritasunekin dator Eskola Kirolaren eskaintza Soraluzen.

Batetik, kuota merkatu, eta orain, LH1-2koendako urte osoko kuota 30 euro da eta LH3, 4, 5 eta 6koendako, berriz, 60 euro –bekak dituztenentzat, doan–. Bestetik, begirale kopurua handitu egingo dute, partaideen ratioa txikitze-ko; hala, helburua da 15-16 ikasleko begirale bat izatea. Hirugarrenik, atletismoarekin lotutako bi topaketa egingo dituzte, bata Eibarren –azaroan– eta bestea Soraluzen –apirilean–. Eta laugarrenik, martxoan egingo den Gipuzkoako Eskola Kirolaren Egunean soraluzetarrek ere parte hartuko dute.

Urriaren 5ean

Anje Eskarzak, Soraluzeko Eskola Kirolaren arduradunak jakinarazi duenez, ekainean egin zuten lehen izen-ematea, eta 70 umek eman zuten izena. Orain, berriz, bigarren izen-ematea abiatu dute, irailaren 25era bitartean, eta helburua da Soraluzen guztira 90-95 bat batzea.

Saioak urriaren 5ean hasiko dira. Ohi denez, adinka antolatuko dituzte umeak, eta talde bakoitzak asteen bi hitzordu izango ditu.

Soraluzen, herrian bertan badauden kirolak praktikatzeko da lehentasuna: pilota, futbola, errugbia eta irristaketa; eta horiekin batera, tradizionalak ere izango dute lekua: eskubaloia, saskibaloia, padela, eskalada...



Eskola Kirolaren azken jaia, aurtan.



Aurtengo sarituak, sari emaileak, epaimahaikideak eta jaialdiaren arduradunak. ANIMADEBA



Uniko ekoiztetzeko kide bat, Film Onenaren Saria jasotzen. N.B.A.

Animadebako Film Onenaren Saria, Bea Lemaren 'El cuerpo de Cristo' lanarentzat

Gidoi Onenaren Saria 'Quai Sisowath / Sisowath Quay' filmak lortu du; Aipamen Berezia, 'Im Auto Tapes und Butterbrot / With Tapes and Toasts in the Car' lanak; eta Zuzendari Berriak sailean 'The Tale of Tran Thanh Duong' nagusitu da

Izaro Aulestiarte

Inoiz baino parte-hartze handiagoa izan da Animadeba Nazioarteko Animazio jaialdiaren hermeretzigarren aldian, eta antolatzaileek "oso balorazio positiboa" egin dute. Lau eguneko festibala joan den larunbatean amaitu zen, hilak 12, eta gustura azaldu dira ondorenean, "Animadeba ikusleen, sortzaileen eta artearen arteko topagune gisa sendotuz" doala iritzita.

Sail Nagusian, Bea Lemaren *El cuerpo de Cristo* lanak irabazi du Animadebako Film One-

naren Saria; izan ere, epaimahaiaren iritziz, "hizkuntza bisual berritzailea" erakusten du filmak. Gidoi Onenaren Saria Georges Sifanosen *Quai Sisowath / Sisowath Quay* lanak jaso du, sail berean; epaimahaiaren iritziz, Kanbodiako folklorea, hondamendi ekologikoa eta beldurrezko generoa "modu originalean" elkartzen dituen gidoia duelako eman diote saria. Eta Aipamen Berezia Kiana Naghshinehren *Im Auto Tapes und Butterbrot / With Tapes and Toasts in the Car* ikus-entzuzkoak lortu du,

"familia barruko gaixotasunaren esperientzia fantasiako eremura eramateagatik, ikuspegi freskoagatik, pertsonaien diseinu bikainagatik eta umoreagatik".

Bestalde, Zuzendari Berriak EHU sailaren lehen saria Hachul Le Doren *The Tale of Tran Thanh Duong* filmak eskuratu du, animazio estilo "freskoa eta ausarta" izateagatik. Gainera, sailaren lehen Aipamen Berezia Daiyu Liren *When the mountains shook* lanari eman diote, "animazioarekiko duen ikuspegi esperimental, ausart eta erabat absurdis-

tagatik", eta bigarrena, Mian Ijlal Ahmaden *Da mor ghag / The mother's voice* filmari, "janari banatzaileek jasaten duten errealitate gogorra eta egungo esplotazio moduak modu hunkigarrian erretratatzegatik".

Animadebaren WIP DAMA

Etorkizuneko animazio proiektuak saritzen dituen Work In Progress WIP DAMA atalean, Celia Alcinaren *In Between* proiektuak jaso du Aipamen Berezia. Azaldu dutenez, "berehala" piztu zuen epaimahaiaren interesa,

"kalitate grafiko eta teknikoagatik, eta egilearen talentuak egin-garri egiten duen anbizioagatik". Euskaraz aurkeztutako Work In Progress proiektu onenaren Berria saria Libe Carballo Aranbururen *Ur gazitan* film laburrari eman diote, eta epaimahai-kideek lanaren "umorea, soiltasuna eta materialekiko sentsibiltatea" nabarmendu dute.

Talentu Berrien DAMA saria Marina Verdaguer Rosen *Kirie Eleison* proiektuari eman diote, formatuari ateratako "aprobetxamenduagatik" eta "formaren eta edukiaren arteko harreman bikainagatik", eta WIP DAMA Profesionalen Saria, aldiz, Kote Camachoren *Nor Nai* proiektuak jaso du; epaimahaia "liluratu" egin duela adierazi dute.

Jaialdiaren sustatzaileak "oso pozik" daude, eta Animadebak orain arteko ikusle eta parte-hartze kopuru handiena lortu duela azpimarratu dute. Gainera, hurrengo urteari begira jarri dira dagoeneko, datorrena hogeigarren urteurrena izango baitute. Urtemuga berezia ospatzeko asmoa dute, betiere animazioaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa berretsiz.



La Bobina Podcast taldeko kideak eta jaialdiko gonbidatuak, solasean. ANIMADEBA



Jendetza bildu zen sari banaketa ekitaldian, larunbat gauean. N.B.A.

"Familiaren egitekoa funtsezkoa da haurrak euskaraz jabe daitezen"

PAULA KASARES SOZIOLOGIA DOKTOREA

Izaro Aulestiarte

Soziolinguistikan doktorea, Euskal Filologian zein Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua eta Hizkuntza Plangintzan nahiz Antropologian graduondoko ikasketak egina da Paula Kasares (Iruñea, 1969). Soziolinguistika eta hizkuntza-antropologia alorretako hiru libururen eta hainbat artikuluren egilea da, eta hitzaldi anitz eman ditu urteotan, Euskal Herrian nahiz atzerrian; batik bat, euskararen transmisioaren, elebitasun goiztiarraren eta haurren hizkuntza sozializazioaren gainean.

Bada, Debako Kultur Elkartean izango da irailaren 22an, asteartez, Zuhatza Euskaltzaleon Mugimenduak gonbidatuta; *Zergatik da garrantzitsua euskararen arloan guraso aktibo izatea?* izenburuko hitzaldia egingo du, 19:00etan.

Kultur Elkartean izango zara datoren asteen, hilaren 22an. Nori zuzendua dago bertan gidatuko duzun motibazio eta kontzientziazio saioa?

Saioa haur txikiak dituzten gurasoei zuzendu zaie, seme-alaba euskaldunak hazi nahi dituzte-



Paula Kasares soziolinguista nafarra. UEMA

nei eta haurrek euskararekin duten harremanaz kezkatzen direnei.

Zer-nolakoa izango da saioa? Ezer aurreraterik baduzu?

"Escolak bere lana egiten du eta familiak lan hori osa dezake, baldin eta euskara aintzat hartzen badu"

Saioa solasaldi irekia izango da; hitzaldi magistral bat baino gehiago, gurasoen kezkei eta galderei erantzuteko solasaldi gidatua.

Hitzorduaren izenburuari erreferentzia eginez, Paula, zergatik da garrantzitsua euskararen arloan guraso aktibo izatea?

Familiaren egitekoa funtsezkoa da haurrak euskaraz jabe daitezen, eta euskaraz ondo eta eroso egin dezaten. Zer-nolako hizkuntza-praktikak ditugun etxean, zer balio linguistiko ja-

sotzen dituzten haurrek familian, zer aukera ematen diegun haurrei etxean eta etxetik kanpo euskaraz egiteko... hori dena familien hizkuntza-plangintzan sartzen da, eta, gurasoei haurrek euskararekin duten harremanak kezka ematen badie, gurasoak euskararen arloan aktiboak izatea garrantzitsua da, bai: erabaki asko daude haien esku, eta erabaki horiek baldintzatzen dituzte haurrek euskararekin duten harremana, hizkuntzaren bizipena eta hizkuntza portaerak. **Ez da beti erraza gurasoen egitekoa zein izan daitekeen argi ikustea; euskararen transmisioaren inguruan, badira hamaika kezka, zalantza eta mito... Zure iritziz, nola indartu daiteke euskararen erabilera? Eta nola osatu daiteke escolak egiten duen lana etxean?**

Escolak bere lana egiten du eta familiak lan hori osa dezake, baldin eta euskara aintzat hartzen badu; hau da, etxeko elkarbizitza linguistikoan euskarari tokia egiten bazaio –etxeko komunikazioetan, etxeko aisialdian, etxeko hizkuntza-kontsumoan (telebista, pantailak, literatura...), haurrek etxetik landa duten sozializazioan euskara bermatzen bada –eskolaz kanpoko jardueretan, kultura kontsumoan...-. Haurrek euskararekin duten harremana sendotzeko eta aberasteko gurasoak aktiboak izatea garrantzitsua da, bestela, erdararen –hizkuntza hegemonikoaren– aldeko inertzia komunikatiboa erraz gailentzen da.

Euskal Jaiko txandak betetzeko laguntza eskatu du Zuhatzak

I.A.

Beste urte batez, irailaren 26an ospatuko den Euskal Jaiko herri bazkaria antolatzen dihardu Zuhatzak, eta ekimena aurrera atera ahal izateko laguntzaileak beharko dituztela gogorarazi dute euskara elkarteko kideek. Hortaz, bazkaria prestatzeko berekin dakartzan zereginak zehaztu eta horiek txandatan banatu dituzte, eta herritarrei laguntzaile gisa jarduteko aukerak eskaini dizkiete.

Pilotalekua atontzeko, sukaldean laguntzeko, Zuhatzaren zozketarako txartelak saltzeko, txosnan lan egiteko eta txosna desmuntatzeko txandak antolatuta dituzte, besteak beste. Boluntario parte hartu nahi dutenek 613 92 01 73 telefono zenbakira deitu edo idatzi dezakete; izen-ematea labur.eus/EuskalJaia2026txandak estekan ere egin daiteke –bertan ikus daiteke eginbeharren zerrenda osoa–.

Bazkarirako txartelak, agortuta Bestalde, euskara elkarteko kideek prestatuko duten paella-janerako txartelak dagoeneko agortu egin direla jakinarazi dute; hiru egunean saldu dituzte guztiak, 350, guztira.

NIRE USTEZ

Beste begiradaz



ANE ITZIAR
BASTIDA LIZASO

Inklusioa ez da mesede bat, begiratzeko modu berria baizik. Gizarteak urteetan desberdina dena ezkutatu du: desgaitasuna, neurodibergentzia, behar intentsiboak. Ikusezin bihurtu dugu deserosoa delako. Halaber, zer da normaltasuna? Lerro estu artifiziala, denok bertan sartu behar dugula sinestarazi digutena.

Benetako inklusioa ez da haur ezberdina gela arruntan sartzea eta kitto.

Sistema bera da eraldatu behar dena, begirada aldatuz. Ez dago haur berezirik; haur guztiak dira bereziak, batzuek laguntza intentsiboagoa behar dute, besterik ez. Diseinu Unibertsala da gakoa.

Aniztasunean hezitako haurra heldu enpatikoagoa, sortzaileagoa eta bidezkoagoa izango da. Ikerketa guztiek diote gela inklusiboetan denek ikasten dutela hobeto.

Ez dugu karitaterik behar, justizia baizik: parkean, eskolan, lanean eta bizitzan leku bera izateko eskubidea.

Beste begiradaz ikusten ikasten dugunean, gizarte osoa da irabazle, inor atzean utzi gabe beti!

1.350 eurotik gora Nepalgo uholdeek kaltetutakoentzat



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Debako nepaldar komunitateak elkartasun diru-bilketa egin zuen aurreko ostiralean, irailak 11, abuztuko uholdeetan Nepalen kaltetutako herrikideei laguntzeko. Sustatzaileek zehaztu dutenez, 1.367,30 euro batu zituzten udaletxe azpiko arkupeetan egindako bilketan; guztia Nepalgo Gobernuak hondamendiaren ondorioei

aurre egiteko irekitako kontu korrontera bideratuko dute.

Sustatzaileak pozik daude herritarren harrerarekin, eta eskerrak eman dizkiete babesa emandako guztiei. Jardunaldia amaitzeko, kandelak piztu zituzten Foruen plazan, hildako herrikideak omentzeko asmoz.

Eguraldi bikaina eta giro aparta nagusi Lasturko San Nikolas jaietan

Auzotarrek eta bertaratutakoek lau eguneko egitarauaz gozatu ahal izan dute

Nerea Bedialauneta Alkorta LASTUR
Lasturko auzoa lau egunez jai giro betean egon ostean, amaitu dira sanikolasak. Jai Batzordeko kideek hitz onak besterik ez dituzte izan aurtengo ospakizunak deskribatzeko, eta, horrekin batera, "giro ederra eta paregabea" izan dela nabarmendu dute. Balorazio zehatza aurrerago egingo badute ere, gustura dauka aurtengo festek eman dutenarekin.

Antolatzaileen esanetan, joan zen irailaren 10etik 13ra ez zen ekitaldirik falta izan auzoan: "Bertsolariak, trikitilariak, jan-edana, jolasak, herri kirolak, dantza, zezenak eta poneyak izan dira, besteak beste, festetako protagonistak. Azken egunean, gainera, pailazoaren emaldia izan da".

Baina jaiak ohiko moldean eta betiko osagaiekin ospatu badi-



Albara ganadutegiko zezenak, Bikoteen Egunean. AINARA ARGOITIA

tuzte ere, berritasunik ere egon da aurtengo sanikolasetan: estreinakoz, banakako pala txapelketa antolatu dute; Intxorpe Egunean jokatuak finalean Aitor Arakistain gailendu zen, baina, emaitzez harago, antola-

tzaileek parte-hartzaile guztien maila goraipatu nahi izan dute. Jaiak amaitzeko, baserriko produktuz osatutako orgatxoak zozkatu zuten; 1.962 izan da zenbaki saritua, eta jabea agertu dela jakinarazi dute.



Auzoko umeak, sokatiran. L.J.B.



Indoiturri Saria bola-txapelketa. L.J.B.

Oscar Herran valladolidarra nagusitu da Kaleko 57. Margo Lehiaketan

N.B.A. DEBA

Joan den larunbatean, Debako Udalak Cardenas Fundazioaren eta Haitz Haundi Arte Elkartearen laguntzarekin antolatzen duen Kaleko Margo Sariketaren 57. aldia jokatu zen.

Helarazitako datuen arabera, 29 margolarik eman zuten izena lehian, eta horietako 28k aurkeztu zituzten beren lanak epai-

mahaiaren aurrean. Guztiak aztertu ondoren, zortzi sari banatu zituzten. 800 euroko sari nagusia Oscar Herranek eskuratu du aurtun, *Kultur Elkartea* lanari esker.

Lehiaketara aurkeztutako obra guztiekin erakusketa zabaldu dute. Lanak astelehenera arte egongo dira ikusgai, Agirre jau-regiko erakusketa aretoan.



Aurtengo sarituak, antolatzaileak eta udal ordezkariak. DEBAKO UDALA

Zumardiko makal zuri bat moztu dute



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Zumardian, kioskoaren parean zegoen 80 urte inguruko makal zuri bat moztu zuten irailaren 12an. Debako Udalak zehaztu duenez, zuhaitzaren inguruko zoladuran pitzadurak eta deformazioak antzeman zituzten, eta, egoera aztertzeke ikuskapen teknikoak eskatu ondoren, txostenak "beharrezkotzat eta premiazkotzat" jo zuen hura modu kontrolatuan moztea, izan zitezkeen arriskuak prebenitzeko. Kokaleku berean zuhaitz berri bat landatuko dutela iragarri dute.

Luzatu egin dute Itziarko ikastaroetan izena emateko epea

Itziarko Auzo Udalak 2026-2027ko ikasturtean haurrei zein helduei zuzendutako ikastaro-eskaintzan izena emateko epea berriro irekitzea erabaki du. Izena emateko epea, berez, ekainean amaitu zen, baina, zenbait ikastarotarako oraindik ere plazak libre daudela ikusita, toki entitate txikiak irailaren 20ra arte luzatu du epea.

Urtero bezala, aurtun ere ikastaro-eskaintza zabala izango da aukeran. Besteak beste, ingeleza, euskal dantzak, trikitia eta panderoa, yoga, eskulanak eta zaharberritzea, joskintza eta puntua ikasteko aukera izango da. Hala ere, gogorarazi dute ikastaro batzuetan balitekeela dagoeneko lekurik ez izatea.

Izena emateko hainbat aukera daude: batetik, Harrera Bulegora deitu (943 19 92 55) edo bertaratu, baita apuntatu@itziar.eus helbide elektronikora idatzi ere. Edo, nahi izanez gero, Internetez, labur.eus/ikastaroak-itziarren2627 estekan sartuta.

Arbil Elkarte Sozialak hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu

Udako etenaldiaren ondoren, berriro lanari ekiteko prest itzuli dira Arbil Elkarte Sozialeko kideak. Ikasturte berriari hasiera emateko, Jose Felix Marti Maso neurologian adituak dementziei buruz egindako hitzaldia izan zuten atzo, eta datozen aste eta hilabeteetarako eskaintza ere prest dutela aurreratu dute.

Eskaintza horren barruan, dantza latinoen ikastaroan zein zoru pelbikoa indartzekoan izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi dute. Azken tailer horrek aurreko urtean izandako harrera ona ikusita, hiru hilabete iraungo duen saio sorta antolatu dute.

Bestalde, Osakidetzarekin elkarlanean, tailer ziklo bat ere egingo dute. Udazkenean izan ohi diren gaixotasunak hizpide, datorren ostegunean, hilaren 24an, izango da lehenengoa: 11:00etatik 12:30era izango da hitzordua, elkarteak Simon Berasaluze plazan duen egoitzan.



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, orduka. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitariarioa ditut. 642 57 89 43

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez zein arratsaldean lan egiteko prest. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitariarioa daukat. 660 511 781 / 943 74 23 30

Elgoibar. Umeak zaintzeko prest nago, arratsaldeetan, 16:00etatik aurrera. 688 60 90 45

Elgoibar. 2026-2027ko ikasturtean umeak zaintzeko prest nago, arratsaldeetan. Hezkuntza arloko ikasketak ditut, eta umeen zaintzan esperientzia. 671 11 17 37

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. 651 16 41 76

LOKALAK

Elgoibar. Erabat egokitutako eta xehetasunez zaindutako lokal bat alokatzen dut Elgoibarren, Errosario kalean. Ezin hobea ongizatearekin zerikusia duten lanbideetarako, kontsultak pasatzeko edo bulego profesional gisa. Sartzeko eta lanean hasteko prest dago. 667 74 21 18



ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



SORALUZE

Eire


Zorionak, marisorgin! Segi inguruak alaitzen. Patxo handi bat, etxekoan partez.



ELGOIBAR

Paul

Zorionak, Paul! Igandean, 9 urte! Oso ondo ospatu! Patxo potolo bat, etxekoan partez.



SORALUZE

Markel

Zorionak, txapeldun! Segi orain arte bezain jator eta umoretsu. Besarkada handi bat etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu!



ELGOIBAR

Maialen

Zorionak, Maialen! Dagoeneko 7 urte potolo! Primeran ospatuko ditugu... txanda eta kito!



SORALUZE

Egoitz

Zorionak, etxekoan partez! Eta ez sekula galdu umore ona!



SORALUZE

Maia

Zorionak, etxekoan partez! Gozatu 16.a topera!



MENDARO

Luken

Astelehenean, 15. Zorionak eta urte askoan, Luken! Segi jator, eta ez galdu irribarre hori. Lagunen eta etxekoan partez, ondo-ondo pasa.



ELGOIBAR

Markel

Zorionak, Markel! Astelehenean 9 urte beteko dituzu! Segi horrelako "xalaua" eta jatorra izaten. Muxu asko denon partez.



ELGOIBAR

Iker eta Idoia

Iritsi da zuen eguna! Asko gozatu eta izan zoriontsuak! Zorionak, bikote! Zuen lagunak.

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.



Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: MAIALEN OLASOLO GABILONDO



Eskatu zure tarta pertsonalizatua!

Zorion-agurra jartzeko bideak

- "Barrena.eus"-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
 - Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
 - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

HIZKI ZOPA

M	Y	U	H	O	L	I	L	C	D	T	T	R	F	J	I	F
B	L	Q	A	Z	X	I	R	I	F	Z	A	N	K	A	P	E
B	A	C	V	S	K	X	F	K	J	X	B	M	N	K	L	W
A	Z	F	J	I	Y	H	Z	F	T	E	R	C	B	P	H	T
L	C	L	P	O	I	T	U	A	S	A	R	Z	D	B	A	C
L	I	Z	O	T	N	U	X	Y	B	I	A	R	R	A	F	F
E	A	O	D	A	I	T	X	I	T	X	A	L	A	P	U	R
Z	Z	G	T	I	A	N	T	X	I	T	X	I	K	A	U	B
H	H	S	L	G	G	Y	A	B	A	N	T	A	U	W	Y	M
J	I	V	A	R	R	I	K	A	R	A	D	N	E	I	L	U

Hizki zopa honetan Debabarreneko herrietako euskararen hamaika berba daude. Hemen behean berriz, hitz horien definizioak. Ea denak ondo lotzen dituzun eta zopan aurkitzen dituzun!

1. Istantz

2. Lijerra

3. Txatxar

4. Arrikara

5. Antxixika

6. Txitxalapur

7. Biarra

8. Abantau

9. Balle

10. Zankape

11. Zazpiki

A. Lasterka, korrika

B. Txiki edo hutsal

C. Ipurterrea den norbait

D. Harana, bailara edo baserri auzoa

E. Belaun atzeko alde

F. Azkarra edo pertsona bizkorra oso

G. Buruko ikutua edo zoro-haizea

H. Abiatu edo bideari gogor heldu

I. Hegazti harraparia

J. Lana

K. Iluntzean ia ilundurik dagoeneko tarte hori

SUDOKU

9								1
	5	1	2				3	
			9	8				
6	8		7	4				
7	3					9		8
	1			5	8	6	7	
		8	1					
		2			7		9	
1	9				4		6	

SUJIKO

		1		3
	20		17	
				6
	26		20	

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakien baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

ERANTZUNAK



barrena.eus/denborapasak

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 18

• **DEBA Kaleko 57. Margo Lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa** Irailaren 21era arte egongo da zabalik. Ordutegia:

astelehenetik larunbatera, 17:00etatik 19:00etara; igandean, 12:00etatik 14:00etara.
• **MENDARO Udako eskuz binakako Master Laboral Kutxa torneo**a Urrezko Ligaren barruan,

gazte eta elite mailak. Goñati pilotalekuan, 19:00etan.
• **ERMUA Bertso saioa Kaltxangon** Euskaltegiaren matrikulazio kanpaina girotzeko bertso saioa. Gai-jartzailea: Leire Vargas. Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Oihana Arana. Kaltxango euskaltegian, 19:00etan.
• **ELGOIBAR Sotoko Hotsak: Sototik**

arkupera Sinuosek antolatuta. Xabier Badiolaren eta Gailuren kontzertuak. Aita Agirren, 19:00etan.
• **ERMUA ZirKuSS taldearen ikuskizuna: 'Sustrai'** Prezioa, 12 euro. Ermua antzokian, 20:30ean.
• **MENDARO Kontzertuak: Ateri, Ezta Ilen eta Grapa taldeak**, Gazte Asanbladak antolatuta. Doan. Gaztetxean, 21:30ean.



ELGOIBAR Zirardamendiko frontean eraildako gudarien omenezko ekitaldia



40 Minutu Rock jaialdia. @GAULILUNAK

SORALUZE Mesedeetako jaiak Errekalde auzoan

OSTIRALA 18: 18:00etan, txupinazoa eta txokolate-jana. 18:30ean, Soraluzeko dantza eskola. 19:00etan, txorizo dastaketa. 21:00etan, Konbo Itxaropena taldea. 23:00etan, EH Sukarra musika taldea. 01:00etan, karaokea.

LARUNBATA 19: 11:00etan, puzgarriak. 13:00etan, toka txapelketa –izen-ematea, 1 euro–. 14:30ean, herritarrentzako bazkaria –bartelak salgai Asigorren eta Iratxon–. 16:30ean, tute txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 17:00etan, hiruko areto futbol txapelketa –2014-2015 eta 2016-2017 urteak–. 17:00etan, umeentzako jolasak, Kukumixorekin. 19:00etan, zezen mekanikoa. 19:00etan, mahai-futbol txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 19:30ean, Duo Amanecer rantxeren musika taldea. 22:30ean, Ahantzi erromeria taldea. 22:30ean, mus txapelketa –izen-ematea, 10 euro bikoteko–. 01:00etan, Trujen eta Estrujenak.

IGANDEA 20: 11:30ean, lehiaketarako patata-tortillak aurkeztu. 12:00etan, buruhandiak eta erraldoiak. 13:00etan, plaza dantza herrikoiak. 13:00etan, toka txapelketa –izen-ematea, 1 euro–. 13:30ean, otarrainxka eta patata tortillen dastaketa eta sari-banaketa. 13:30ean, apar festa. 15:00etan, jaien amaiera.

LARUNBATA 19

• **MALLABIA Mendi irteera: Arietzu** Mallabiko Mendizaleak elkarteak antolatuta. 9 kilometroko ibilbidea eta gutxi gorabehera hiru orduko iraupena. Irteera, Elizalde plazatik (Bastida), 09:00etan.
• **ERMUA V. Hiru Txikiak Trail** Irteera, San Pelaioit. Martxa 44K, 08:00etan. Trail 44K, 09:00etan. Trai 27K, 10:00etan. Gazte Trail 12K, 11:00etan. Txiki-Trail txikien inskripzioen arabera egokituko da.
• **ERMUA Enpanadaren jaia** Orbe Kardinala plaza, 11:00etan.
• **DEBA San Sebastian Circuit Spirit –auto klasikoen rallya eta erakustaldia–** 13:30 aldera.
• **MALLABIA Butroeko gazteluko hipika irteera.** Zapatuero ekimena, txikien programa. Irteera, Petritetik –udaletxeko ondoko aparkalekua–, 15:45ean.

IGANDEA 20: 36ko gerran Zirardamendiko frontean eraildako gudarien 90. urteurreneko omenaldi ekitaldia antolatuta du Elgoibarko Udalak. Ekitaldia Aiestia-San Miguel auzoko pilotalekuaren ondoan izango da, 11:00etan, Gernikako zuhaitzaren kimuaren eta plaka oroigarriaren aurrean, fronte hartan borrokatu zirenak omentzeko memoria- eta aitortza-gunean. Izaera irekiko ekitaldia da, parte hartu nahi duten pertsona guztiei zuzendua.



ERMUA Mugikortasunaren Europako Astea: Bizikletaren Festa

IGANDEA 20: Bizikletaren Festa herritar guztientzat zabalik egongo den eguna izango da. 10:30ean, bizikletak konpontzeko tailerra, Kalapie Txirrindulari Elkartearen eskutik. 11:00etan, haurrentzako bizikleta-ginkana, Ermuko Txirrindulari Elkartearen eskutik. 12:30ean, ibilaldi zikloturista herriko kaleetan zehar. San Pelaio plazatik abiatuko da. Norbere bizikleta eta kaskoa eramatea derrigorrezkoa da.

KIMU KUKUKA

BA AL DAGO INOR ZURE HORTZEN ARTEAN BIZITZEN?

HORTZAK GARBITU LOTARA JOAN AURRETIKI

ZE NAGAI, PASO...

TXIKITATIK ERAKUSTEN DIGUTE HORTZAK GARBITZEAREN GARRANTZIA.

DENOK DAKIZKIGU OHTURA HORI EZ JARRAITZEAREN ONDORIOAK.

TXANTXARRAI

TXANTXARRA HORTZETAKO EHUN GOGORREN, ESMALTEAREN ETA DENTINAREN, SUTETSAPEN LOALDIA DA.

1. AHOKO BAKTERIOEK ZURE HORTZEN ARTEAN GERATZEN DIREN JARRAI-HONDARRAK HARTZEN DITUZTE...

2. ...ETA ESMALTEA ETA DENTINA ERASOTZEN DITUZTEN AZIDOK SORTZEN DITUZTE. HORTZETAN PITZIDURAK ETA ZULOKAK SORTUZ.

3. TXANTXARRA HORTZ BARRURA IRISTEN BADA, GAI EGIN DEZAKEGUI

EZAGUTU TXANTXARRA! ETA HAIEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA GEHAGO ZIENTZIA KALEA BLOGEAN.

BAINA BADA SENDADERIK? ESADAZU BAIETZI!

- **MALLABIA Barrika piragua taldera irteera.** Zapatuero ekimena, nagusien programa. Irteera, Petritetik – udaletxeko ondoko aparkalekua–, 15:45ean.
- **ELGOIBAR Osynth Eguna: Alternative Division** Musika Elektronikoaren jaia egingo dute, Maalako parkean, 18:00etan.

IGANDEA 20

- **MALLABIA Bakarkako Frontenis Liga –finala–** Eskolako frontoian, 09:30ean.
- **DEBA Mendi irteera ikasleekin: Elorriaga-Itziar-Deba –goiz-pasa–** Burdin Kurutz Mendi Taldearen ekimenez. Autobus geltokian, 08:30ean.
- **DEBA Gasteizko Gurasoak San Viator abesbatzaren kontzertua** Santa Maria elizan, 12:00etan.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Beharrezkoak: jantzi egokiak eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat: 10 euro–. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*. Irteera puntua: Anes Arrinda pasealekuan –pantalana–, 12:30ean.

ASTELEHENA 21

- **SORALUZE Tailerra: 'Aurretiazko borondateak'** Nagusien

- Kontseiluak eta Osakidetzak elkarlanean antolatuta. Pertsona gaixoak erabakietan parte hartzeko gaitasuna galtzen duenean ematen zaion osasun-arreta aldeztu aurretik adierazita uzten duen dokumentua lantzeko tailerra. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
 - **SORALUZE Euskarazko irakurle taldea: 'Barazkijalea'** Ainhua Aldazabalek dinamizatuta. Liburutegian, 19:00etan.
 - **SORALUZE Erakusketa: Baroja Collet-en 'Osatu gabea'** Baroja Collet eskultore eta grabatzailearen lanak erakusgai egongo dira, astelehenetik ostiralera, urriaren 30era arte Oreka Art galerian, 19:00etan.

ASTEARTEA 22

- **SORALUZE Hitzaldia: 'Bizitzaz harago zaintzea'** Nagusien Kontseiluak eta Osakidetzak elkarlanean antolatutako hitzaldia. Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **DEBA Hitzaldia: 'Zergatik da garrantzitsua euskararen arloan guraso aktibo izatea?'** Hizlaria: Paula Kasares. Kultur Elkartearen, 19:00etan.

OSTEGUNA 24

- **DEBA 'Osasuna eta udazkena; katarroak, gripeak, anginak...zer egin?'** tailerra Arbil Elkarte



DEBA Barretegia

OSTIRALA 25: Barretegia *stand-up comedy* probalekua. Bakarrizketariak: Xabier Arraztoa, Iker Iribarren, Lander Varona, Joana Arakistain, Manex Astigarraga eta Esti Curiel. Sarrerak salgai, 5 euroan, *labur.eus/barretegiadeba12* estekan. Kultur Elkartearen, 20:00etan.

Sozialak eta Osakidetzak elkarlanean antolatuta. Arbil elkartearen, 11:00etan.

- **MENDARO Berdindu Zerbitzu Ibiltaria** LGTBI Euskal Zerbitzuak eta Mendaroko Udalak antolatuta. Hitzordua eskatzeko: 900 84 01 28 / 688 76 98 65, *berdindu.gipuzkoa@euskadi.eus*. Aurrez aurreko arreta udaletxeko Arno aretoan, 12:00etatik 18:00etara.
- **MENDARO EH Bilduren herri batzarra** Udaletxean, 18:30ean.

OSTIRALA 25

- **SORALUZE Odol emaleen hitzordua** Itxaropenan, 16:30ean.
- **SORALUZE Gazte Topagune Sozialistaren**

- aurkezpena** Gaztetxean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Kontzertua: Maren** Sarrera 15 euro. Makina Erremintaren Museoan, 20:00etan.
 - **ERMUA Antzerkia: 'Mejor no decirlo'** Sarrera: 15 euro. Ermua antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 18 BARIKUA Garitaonandia / H. Burgoa / A. M. Baz
- 19 ZAPATUA Arriola / H. Burgoa / M. Alves / *A. M. Baz
- 20 DOMEKA Arriola / H. Burgoa / M. Alves
- 21 ASTELEHENA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
- 22 MARTITZENA Yudego / Lasuen-Elezgaray / A. Alcala
- 23 EGUAZTENA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte
- 24 EGUENA Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / A. M. Baz
- 25 BARIKUA Soto / L. Apraiz / M. Alves

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Elbarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1- 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIK:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
Iñaki Agirre zinemaldia
'Palestina 36'
Ostirala, 18: 19:00
'Familia de alquiler'
Larunbata, 19: 19:00
Igandea, 20: 19:00
Astelehena, 21: 21:00
'Un poeta'
Osteguna, 24: 21:00
Ostirala, 25: 19:00.

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'La misteriosa mirada del flamenco'
Igandea, 20: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'La Odisea'
Larunbata, 19: 22:15
Igandea, 20: 19:30
'Minions & Monsters'
Igandea, 20: 17:00

'Días de agosto'

Astelehena, 21: 20:30
'La última ronda en Venecia'
Osteguna, 24: 20:30

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Prácticamente magia 2'
Larunbata, 19: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 20: 17:00, 20:00.
Astelehena, 21: 19:30.
'Un plan perfecto'
Larunbata, 19: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 20: 17:00, 20:00.
Astelehena, 21: 19:30.
'Cinco segundos'
Larunbata, 19: 19:45, 22:30.
Igandea, 20: 20:00.
Astelehena, 21: 19:30.
'Tadeo Jones y la lámpara maravillosa'
Larunbata, 19: 17:00.
Igandea, 20: 17:00.

Ezagutarazi zure ekitaldia
Debabarrena osoan

Bidali zure ekitaldiaren berri
barrena@barrena.eus helbidera

Barrena
BATZEN GAITUENA

10.500 ale astero
+120.000 bisita hilean

AZKEN BERBA

Dagoena onartu ala borrokara batu!



NAIA AIZPURUA
ITAIKO KIDEA

Askotan, egunerokoari aurre egiteak indar guztiak kentzen dizkigu. Lana, ikasketak, alokairua, etorkizunarekiko ziurgabetasuna... Eta, bitartean, gero eta leku handiagoa hartzen dute indibidualismoak, ideia matxistek eta diskurtso erreakzionarioek. Halako testuinguru batean, erraza da nekatzea; are errazagoa, ezer aldatzerik ez dagoela sinestea.

Baina etsipenak ondorioak ditu. Bakoitza bere arazoetara mugatzea, isilik geratzea edo gertatzen dena onartzea ez da jarrera neutroa. Etorkizuna beste batzuek erabakitzen duten bitartean, guk ere badugu zer erabaki:

antolatuko garen, elkarrekin pentsatuko dugun edota bestelako bizimodu baten alde borrokatuko garen ala ez.

Horregatik behar ditugu elkartzeko eta eztabaidatzeko espazioak: bakarka erantzutea gero eta zailagoa delako. Horretara dator urriaren 9tik 12ra Elizondon ospatuko den Gazte Topagune Sozialista: gazteon artean pentsatzeko, eztabaidatzeko, antolatzeko eta indarrak batzeko.

Erabakitzeke unea da: dagoena onartu ala borrokara batu!

BUKATZEKO

Auto klasikoen erakusleihu eta topaleku bihurtuko da bailara asteburu honetan

Motor hotsek hartuko dute bihar Deba; igandean, aldiz, Ermua eta Mallabia

I.A. / A.G. DEBABARRENA

Auto klasikoen zaleek bi hitzordu izango dituzte aukeran asteburu honetan Debararren: batetik, San Sebastian Circuit Spirit ekimenak geldialdia egingo du Deban larunbatean, hilak 19; bestetik, Klasikoen Kontzentrazioa izango da biharamunean, Ermuan eta Mallabian. IX. edizioa dute aurten bi jarduerak.

San Sebastian Circuit Spirit rallyak Gipuzkoan barrena egingo du ibilbide osoa. Bi kategoriatan ariko dira parte hartzaileak: auto klasikoen eta kirol autoen rallyan –1923tik 1973ra arteko ibilgailuak– eta kirol autoentzako GT biran –GT auto modernoak–. Guztira, 120 partaide batuko dira, Euskal Herrikoak zein Kataluniatik, Espainiatik eta, batik bat, Frantziatik etorritakoak. "Pozik gaude kopuruarekin, erakustaldi polita izango da", aipatu dute Touring Escuderiako Agustin Garcia eta Jose Luis Velez antolatzaileek.

Ibilbide bera egingo dute denek: 140 kilometro, 50 kilometrotik beherako abiaduran. Donostiako Gipuzkoa plazatik irtengo dira, 10:30ean, eta 19:00 aldera egingo dute hiribururako itzulera.

Bi zatitan banatu dute hitzordua. Goizean, Donostiatik Debarainoko tartea egingo dute, Usurbil, Orio, Zarautz, Zestoa, Azpeitia eta beste hainbat herritatik igarota. Deban bazkalduko dute, Aldats pilotalekuan, eta 13:30etik 16:00etara autoak herrigunean izango dituzte aparkatuta, Foruen



2024an, 67 ibilgailu klasikok desfilatuz zuten Ermuko topaketan. ESTIBALITZ GONZALEZ



Auto klasiko bat San Sebastian Circuit Spirit rallyan. SAN SEBASTIAN CIRCUIT SPIRIT

plazan, Plaza Zaharrea, zuzendiko kioskoan nahiz ibaiaren ondoan, Arrantzale kalean. Bazkalostean, berriz, Donostiara joango dira, Itziar, Zestoa, Galaria, Zarautz, Orio, Aginaga, Usurbil eta Lasartetik pasatuta.

120 auto klasiko eta kirol auto izango dira Deban; 50, gutxienez, Ermuan, baina izen ematea ez dago itxita

San Sebastian Circuit Spiritek zortzi edizio izan ditu, 2017az geroztik. Garciak eta Velezek azaldu dutenez, Donostiako Automobil Zirkuituaren –Lasarteko zirkuitua ere deitua– "espiritua" berreskuratu nahi dute, 1923tik 1935era egin ziren "lasterketa handiak" gogora ekarrita. "Gurea, baina, ez da kirol jardura bat, ez dago lehiarik, paseo bat besterik ez da", erantsi dute.

Izen-ematea zabalik Ermuan

Igandean, hilak 20, Ermua izango da "altxor gurgildunen" bilgune, Ermuclassic elkarteak antolatutako Klasikoen Kontzentrazioak 30 urtetik gorako hamarnaka ibilgailu batuko baititu herrigunean. Momentuz, berrogeita hamar bat lagunek eman dute izena, baina, antolatzaileen esanetan, kopurua nabarmen igo ohi da azken orduan. Izen-ematea zabalik dago oraindik, bost euroan: aurrez egin daiteke, 609 91 60 83 telefonora deituta, edo egunean bertan, 09:30ean, Orbe Kardinala plazako kioskoan.

Partaideek ordu eta erdian egingo dute ibilbidea. 11:00etan hasiko dute desfilea Ermuko kaleetan, eta herritik irtetean Mallabirako bidea hartuko dute; Trabakua Behekoa jatetxea da ekimenaren babesleeta bat, eta aparkalekuan geldiunea egingo dute, luntxaz gozatzeko. Berriz eta Areitio aldetik egingo dute, ondoren, Ermurako buelta.

13:30ean egingo dute sari-banaketa, Orbe Kardinala plazan. Talderik ugariena, autorik zaharrena, urrunetik etorritakoa eta eskusiboen sarituko dituzte, besteak beste; garaikurrak gain, materiala emango dute sari: motor-abiagailuak, garbiketako kitak eta bestelako piezak. Bertako produktuekin osatutako saskiak ere zozkatuko dira.

Barrena

BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide



► 1. saria: Ane Bastida

Dastatze-menua bi pertsonarentzat
Elgoibarko Gabi jatetxean

2. saria: Ainara Juaristi

Bi bonu Iparsurf eskolaren surf ikastarorako

► Publikoaren saria: Igor Torres

Errigoraren saski bat

Eskerrik asko udako argazki lehiaketan parte hartu duzuen guztioi!